ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2009ko urtarrilaren 26a > Astelehena > VII. urtea > 218. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net

"Gizarte eredua aldatzea da gakoa, eta ez petrolioari ordezko erregaia bilatzea"



**Martin Mantxo**
Ekologistak
Martxan > 8

**G2a** **Iñigo Arregi eskultoreari elkarrizketa** > 29

**OSTALARITZA**
**Arantzazuko hospederia beste enpresa batek kudeatuko du** > 04

**EKONOMIA**
**Eskola Politeknikoak energia berriztagarriei helduko die** > 06

**ZIKLISMOA**
**Markel Irizar mendiko saria irabazita, Australiatik bueltan** > 26

**ELGETA** > AHOZKO ONDAREA

# 'Ahotsak.com'-en esku hartutakoei, omenaldia

**AHOZKO ONDAREA** 30 bat elgetarrek esku hartu dute euskarazko ahozko ondarea berreskuratzeko ekimenean

**OMENALDI BEROA** Ekimenean esku hartutakoek esker onez hartu zuten Elgetako Udalak egubakoitzean antolatutako omenaldi berezia > 11

**MENDIA** > BATZARRA

## Besaideren etorkizuna, kolokan

Besaide mendi elkarteak egindako batzarrean ez zuen inork datorren lau urteotarako taldearen ardura hartu. Hortaz, talderik aurkeztu ezean, martxoaren 6an elkartea bertan behera gera daiteke. > 26

**OSPAKIZUNA** > URTEBERRIA

## Gaur hasi da txinatarren urte berria

Gaur, astelehena, egin diote ongietorria idiaren urteari ibarreko txinatarrek > 03



JOSETXO ARANTZABAL

EZKER KOLPEA Santi Galan boxeolari ohia, egubakoitzeko entrenamendu saioan, Arrasaten; gaur egun entrenatzaile lanak egiten ditu.

**BOXEOA** > SANTI GALAN

# "Berriro borrokatuko nuke, har hori dut barruan" > 21

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 03
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39
**Azkena** > 40

**EGURALDIA** > ZIKLOIA

## Argi barik egon da jende asko asteburuan

Haizeak arazo handiak eragin ditu errepideetan eta argi-indarrean > 12



Asentzion (Elgeta) elektrizitate zutoina bota zuen haizeak. MIRIAN BITERI



Zira opari. Nahi?

Zoaz 7. orrialdera


ZABALIK
75 dendatik eta 200 produktutik gora.
merkatua.net Debagoieneko denda handiena. Etxetik bertatik eskura.
MERKATUA.net
Debagoieneko denda

**JAIAK** > URTE BERRIA, TXINATARREK

# Familia giroko jatorduekin hartuko dute urte berria txinatarrek

**ASTELEHENA** Gaur, urtarrilak 26, egin diote ongietorria urte berriari txinatarrek

**IDIA** Aurtengoa idiaren urtea da; sinestunek diote zortearen adierazle dela animalia hori

**OSPAKIZUNAK** Familiakoekin eta lagunekin otordu bereziak eginez, kantuan eta jokoan ospatuko dute urte hasiera

**OHITURAK** Ospakizunetarako zenbait gauza lortu ezin direnez, ohiturak ez dira berdin-berdin betetzen

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Egutegi asko daude munduan barrena, elkarren artean oso ezberdinak, gainera, eta bakoitzean urteko lehen eguna aldatu egiten da. Kristauen egutegiaren arabera 2009. urtea urtarrilaren 1ean hasi zen; txinatarrek, aldiz, gaur, urtarrilak 26, hasiko dute urte berria, idiaren urtea.

Gurean ere bada txinatarrik, eta eurendako gaur hasi da urtea. Ospatzen ote dute urte berrirako sarrera gurean urtarrilaren 1ean egiten den moduan, jai batekin, nahiz eta Txinatik kanpora bizi izan? Zergatik izendatzen dituzte urteak animalia izenekin? Erantzun horien bila jo dugu gurean bizi diren hainbat txinatarrengana.

"Txinan familiakook batera egiten ditugu jatorduak urteko lehen egunean. Gosaltzeko, esaterako, tallarinak jaten ditugu, bizitza luzatzen dutela diote-eta. Mendira ere joaten gara. Hemen familiakoak bazkaltzeko elkartzen gara eta abestu ere egiten dugu", azaldu digu azken sei urteotan ibarrean bizi den eta Bergaran Dragon Oriental jatetxea duen Zhunguang Jiang-ek.

Arrasateko La Gran Muralla jatetxe txinatarreko Xiao Fen Yin-en esan digunez, "urte berriaren hasieran opor egunak izaten dira Txinan, gutxienez astebeteko oporrak, eta familiak elkartzeko aitzakia izaten da. Egun alaiak dira benetan, jai handiak egiten dira; besteak beste, kalean herensugearen dantza. Gu Txinatik kanpora egonik, guretik norbait joaten da egun horietan hango familia bisitatzera".

**URTE BAT, ANIMALIA BAT**

Urte hasierarako ez dute egun zehatzik, txinatarrek erabiltzen duten egutegiak ez baitu zerikusirik gurearekin. Zhunguang Jiang-ek azaldu digunaren arabera, "nekazariena den egutegi batean oinarritzen da eta urte mordoa da hori erabiltzen dena. Gure amak badakizki egutegi horren nondik norakoak, baina nik ez dut ulertzen, zaila da".

Ilargiari erreparatuz urtea ziklotan banatzen dute, hamabi guztira: arratoia, idia, tigrea, untxia, herensugea, sugea, zaldia, aharia, tximinoa, oilarra, txakurra eta txerria. Animalia bakoitzak ezaugarri bereziak ditu eta urtea ezaugarrion jabe egingo da. Gaur hasi eta 2010eko otsailaren 14ra artekoa idiarena izango da.




Xiao Fen Yin familiakoekin Arrasateko jatetxean, egutegi txinatarra esku artean dutela. IRATI AGIRREAZALDEGI

Zhunguang Jiang-ek esan digu idiaren urtea zortearen, osasunaren eta arrakastaren urtea dela. Umeak izateko orduan bada jendea kontuan hartzen duena zein animaliaren urtea den. "Arratoiaren urtean jaio den umea argiagoa dela diote sinestunek eta idiaren urtekoek arrakasta handiagoa izango dutela, eta horri erreparatzen dio jendeak Txinan".

Xiao Fen Yin ere bat dator horrekin. "Idiaren urtean ezkontzen edo jaiotzen dena zorteduna izango da", esan digu.

**OSPAKIZUNAK**

Sineskeriak kontuan hartu edo ez, urte berriko ospakizunak ez dira falta txinatarren artean ere, eta familia eta lagun giroan egiten dituzte.

"Aurten astelehena izanik, zaila da denok elkartzea. Hemengo urte berria, urtarrilaren 1a, ere ospatzen dugu jende gehiagorekin, etxekoekin, jatetxeko langileekin eta hemen bizi diren beste senideekin. Jatordu berezi horietan arrainik ez da falta izaten mahaian eta oso gureak diren gozorik ere ez", kontatu digu Zhunguang Jiang-ek.

Xiao Fen Yin-en familiak domeka gauean egingo du ospakizuna, Leioan. " 2006an Arrasaten egin genuen eta tokia txandakatzen dugu. Familiakoak eta lagunak elkartzen gara elkarrekin afaltzeko, 40 lagunetik gora. Afari berezia jan eta gero kantuan, pokerrean edo dadoetan jarduten dugu eta goizaldera arte irauten du festak", kontatu digu.

Hango ohitura batzuk mantentzen dituzten arren, badira hemen erosi ezin daitezkeen gauzak; hortaz, zaila da urte berriaren hasiera berdin-berdin ospatzea. Hala ere, Xiao Fen Yin-ek esan digu seme-alabek ere jarraitzen dituztela hango ohiturak: "Urte berrirako arropa berria erosten diegu eta etxeko atean gorriz idatzita zorte mezu bat ipintzen diegu".

Guri ere bidali digu mezu bat: "Xin nian kuai le": urte berri on, hain zuzen ere.

## Idiaren urtea: ekonomikoki gogorra, maitasunerako aproposa

Urte bakoitza animalia batekin izendatzen du horoskopo txinatarrak eta idiaren urtea da gaur hasi dena. Idiaren urtean jaiotzen direnak hitzekoak, konfiantzakoak, lasaiak eta metodikoak dira, adituen esanetan.

Idia animalia gogortzat daukate, lurra lantzeko erabiltzen duten neurrian langilea ere bada. Hortaz, aurtengoa urte gogorra izango dela esan nahi du horrek, eta erruz lan egin beharko dela baldin eta arazoak gainditu nahi badira.

Hori lanari dagokionez, baina maitasunean urte ona aurreikusten dute adituek, bikotekide bila hasteko urte aproposa ei da.

Arratoiak hasitakoa idiak amaitzen duela diote, eta, lana eta ekonomia bat datozenez, ekonomikoki ere urte zaila aurreikusi dute idiarena, arratoiaren jarraipena. Idiaren urtea azken aldiz 1997an izan zen eta Asian krisi urtea izan zen. Orain, Asian ez ezik mundu guztian sumatzen da krisiaren eragina.

**OSTALARITZA** > ARANTZAZUKO SANTUTEGIA HOTELA

# Otsailetik aurrera beste enpresa batek kudeatuko du Arantzazuko hospederia

Aizkorri Gestion enpresak Gabonetan jakinarazi zuen Arantzazuko hospederia utzi egingo zuela, barne egoera txarragatik



Arantzazuko ospederia zaharra itxita dago. Otsailean irekiko ditu ateak eta enpresa kudeatzaile berria izango du. A. BARRUSO

**ARRITXU BARRUSO** > OÑATI

Abuztuan ireki zituen ateak Arantzazuko hospederia berriak. Lau hilabete geroago, abenduan, Aizkorri Gestion enpresak jakinarazi zion Arantzazu Gaur Fundazioari barne egoera txarra zelaeta utzi egingo zuela ostatua. Hori horrela, fundazioak erabaki zuen ahalik eta modu adiskidetsuenean bukatzea Aizkorri Gestion enpresarekin zeukaten kontratua, eta lehenbailehen aurkitzea hospederia kudeatuko duen enpresa berria. Arantzazu Gaur Fundazioa tartean erakunde publikoek osatzen dutenez (Oñatiko Udala eta Diputazioa), lehiaketara atera zuten hospederia kudeaketa. Eta dagoeneko erabaki dute otsailetik aurrera ze enpresa arduratuko den ostatuaz: "Ustekabean hartu gintuen berriak. Urtarrilean hospederia ixtea aurreikusita zegoen, langileei oporrak emateko eta lan batzuk egiteko. Baina, gure kexka zen ea zein arduratu behar zen ostatuaz otsailetik aurrera. Zorionez dena oso azkar joan da eta dagoeneko badaukagu enpresa hori", azaldu du Iker Uson fundazioko kideak. Dena dela, ez dute enpresaren izena publiko egin nahi izan. Aurreratu dute, bakarrik, euskalduna dela eta ostalaritza munduan eskarmentu haundikoa.

**LANGILEAK**

Hospederian lanean ziharduten langileei dagokienez, fundaziotik azaldu dute aukera asko daudela enpresa berriak langile berberak kontratatzeko: "Guk bi konpromiso hartu genituen: langileak uneoro informatuta edukitzea eta ahalik eta esfortzu handiena egitea, enpresa berriak orain arteko langileak kontratatu ditzan. Esfortzu horiek emaitzak ematen dabiltza eta itxaropentsu gaude. Uste dugu langileek, portzentaia handi batean, lanean jarraituko dutela", dio Usonek.

**IREKIERA EGUNA**

Oraindik zehazteke dago, baina, otsailean, ze egunetan irekiko den hospederia. Hala ere, fundazioko ordezkariek adierazi dute lehenengo hamabostaldian izango dela hori.

**HEZKUNTZA** > IKASTOLEN VI. BATZARRA

## Europar Kooperatiba sortu dute, ikastola guztiak batu eta eraginkorragoa izan dadin

Euskal Herri osoko ikastoletako ordezkariek garai berriei aurre egiteko batzar garrantzitsua egin zuten zapatuan

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Herenegun, zapatua, *Ikastolak orain eta gero* izeneko txostena onartu zuten aho batez Euskal Herri osoko 101 ikastolatako ordezkariek. Batzarra Donostiako Miramon Teknologia Parkean egin zuten, eta luze jo zuen.

Iazko irailean txosten berri hori aurkeztu zuten Hendaian egindako batzarrean, eta Donostiako batzarrera arte ordezkariek berau eztabaidatzeko eta adosteko denbora izan dute.

**2020 URTERA ARTEKO PLANA**

2020 urtera arte adostatutako planaren barruan ikastolen funtzionamendua hobetu gura dute errazagoa, eraginkorragoa eta parte-hartzailegoa izan dadin.

Horren harira, Europar Kooperatiba berria eratu dute, eta ikastola guztiak bere baitan bazkidetuko dira. Kooperatiba horrek ekainean eskuratuko du izaera juridikoa; eta helburua da hezkuntza, ekonomia eta bestelako zerbitzuak erakunde bakarrean bateratzea. Modu horretan eraginkorragoak izango direla uste dute.

Bestalde, batzarrean hartutako ondorioetako bat da ikastolen gaur egungo belaunaldia bestelakoa dela, eta indarguneak beste batzuk direla.




**TXAKOLINA** > JATORRI-DEITURA

## Kataideko txakolinari trabak jarri berri dizkiote

Hainbat erakunderen oniritziaren zain daude, aurtengo txakolina merkaturatu ahal izateko

**I.B.** > ARRASATE

Ibarrean txakolina egiten duten ekoizleek borroka handia egin zuten jatorri-deitura lortzeko. Eurek *Gipuzkoako Txakolina* izena lortu gura zuten arren, *Getariako Txakolina* izena eskuratu zuten.

Baimena urtarrila hasieran jaso zuten, baina orain bestelako trabak ditu Kataidekoak. Botilen etiketak Getariako Txakolina elkartera orain dela sei hilabete bidali zituzten, eta erantzuna jaso berri dute. Kataideko Jabier Arregik azaldutakoaren arabera, jakinarazi diote etiketan ezin duela Gipuzkoa jarri, ezta Kantauri alde; eta are gehiago, atzeko etiketan Getariako Txakolina jarri beharko duela. Arregi atsekabetuta dago etiketak aldatu, berriro bidali eta aurtengo txakolina ateratzeko, hurrengo erantzunaren zain egon behar duelako.



Angiozarko Parteittin aurkeztu ohi dute urteko txakolina. Aurten, iazkoa. J.A.



Debagoieneko zaharren egoitza berriak orain duen itxura. MIRARI ALTUBE

**LANAK** > ZAHARREN EGOITZA

# Maiatzean zabalduko dute Debagoieneko egoitza berria

Eguneko zentrorako erabiliko diren 30 plaza izango ditu egoitza berriak; horretaz gain, bertan 110 langilek jardungo dute lanean

**JASONE ZABALA** > ARETXABALETA
Maiatzerako zabalduko dute zaharren egoitza, halaxe adierazi digute, LKS Ingenieriatik. LKS Ingenieria enpresa Mondragon Taldea barruan dago eta bera hari da lanok sustatzen. LKSk badu badu eskarmentua halako lanetan, izan ere, GSR kooperatibak (Gestion de Servicios Residenciales) bost urte daramatza lanean LKS Ingenieriaren barruan, eta gaur egun hainbat egoitza kudeatzen ditu.

Aretxabaletan, Izurieta auzoko sarrera ondoan egiten ari dira egoitza. Bertan 170 pertsonendako lekua egongo da –oraingo Urats-Gain egoitzak daukana baino 146 gehiago–.

**2007AN HASI ZIREN**
Egoitza berria egiteko lanak 2007ko irailean hasi zituzten eta sustatzaileek esan dutenaren arabera lanen hiru laurdenak dagoeneko eginda daude. Hasierako asmoa lanak Aste Santurako amaitzea baldin bazen ere, azken asteetan egindako euri eta elurrek lanen atzerapenean eragina izan dute eta aurreikusi dute lanak maiatzera arte atzeratuko direla.

**DEBAGOIENEKO EGOERA**
Debagoienean momentu honetan 11.617 biztanletik gora daude 65 urtetik gora, eta zahartze tasa %19koa da, Gipuzkoako bataz bestekotik puntu bat gorago. Gaur egun, Debagoieneko zaharren egoitzetan 387 pertsonendako tokia dago; 82 eguneko zentroetan, horietatik 12 asteburukoak dira; 564 pertsonek erabiltzen dute etxez etxeko zerbitzua eta 338 dira teleasistentzia programakoak. Egoera horrela, zerbitzua zabaldu nahi da Debagoienean dauden beharrak kontutan hartuz. Egoitza berrian, 110 lagun ibiliko dira lanean; aurrez aipatu bezala, 170 plazetatik 30ek izaera sozio-sanitarioa izango dute.

Laguntza soziala eta osasun laguntza behar dutenendako izango dira 30 plaza. Gainera, 140 plazetatik erdiak Diputazioarekin hitzartutakoak dira. Horietatik 15 egongo dira Unitate Psiko-geriatriko batean, dementzia, alzheimerra eta antzerakoak dituzten gaixoendako. Gainerako 70 plazetatik 20 aldi baterako egonaldietarako izango dira.

**POLITIKA** > ESPETXEAK

# Illarramendi kondenatuen kartzelara hiru hilabete barru

Kartzela zigorra jasota, kondenatuen kartzelan beharko luke

Hiru hilabeteren buruan bere egoera aldatzea onartu dute

**J.Z.** > BERGARA
Mikela Illarramendi euskal preso politikoak hilabete darama bakarturik Moulins Yzeureko espetxean. Abenduan izandako epaiketaren ondoren, 10 urteko kartzela zigorra jasota, berriro ere prebentiboen kartzelan sartu dute, hemen preso politiko bakarra izanik. Berez, kondenatuen kartzelan beharko luke.

Honen aurrean, egoera hau salatzeko eta beste preso politikoekin elkartzeko isolamenduan sartzeko erabakia hartu zuen oñatiarrak. Kartzelako zuzendariari esan zion epaia jaso duenez gainerako presoekin ziegan egon gura zuela, baina kartzelako zuzendariak ez zuen horrelakorik onartu.

**EGOERA ALDAKETA**
Nobedadeak daude honen kontura, ordea; espetxeko zuzendaritzak eskaria onartu du eta gehienez hiru hilabeteren buruan bere egoera aldatzea onartu dute.

etxeko leihotik



**Iker Barandiaran** > ibarandiaran@goiena.com

## Madrilera joateko premia eta batzuen interesa

Etxeko balkoitik hara eta hona eramaten nauen autoa ikusten dut. Urte asko pasa nituen gida-baimen barik, baina gauza asko egiteko gai izan nintzen. Gerora, hainbat faktore tartean, gidatzeko baimena atera eta *motorizatu* nintzen. Ordutik ia egunero daukat autoa bidai-lagun.

Horren harira, gogoan dauzkat Bilbon pasatako urteak, eta trenak eskaintzen zizkidan erosotasun eta erraztasunak. Betidanik inbidiatu ditut alboan bizi diren Durangaldeko eta Debabarreneko biztanleak; geltokira joan eta herritik herrira mugitzeko daukaten eskubidea, Debagoienean bizi garenondako luxua dena.

**"Trenaren bidez mugitzeko eskubidea ibarrekoendako luxua da"**

Madrilen bizi den lagun batek askotan esaten dit Madril eta Euskal Herria lotuko lituzkeen AHT egiteko deseatzen dagoela. Nik esaten diot herriak alde batera utzita, hiriak elkartuko dituen garraiorik ez dudala gura; are gutxiago, halako kalteak eta kostuak eragiten baditu. Urbinan aurrekoan gertatutakoa ikusita, Madrilera joateko aukerak asko dira. Hain zuzen ere, Urbinan atxilotutakoak Audientzia Nazionalera, terrorismoaren akusaziopean, eramateko ahalegina egin zuen-eta Jaurlaritzako Barne Sailak.

**> Garraio publikoa**
**Garraio publikoa erabiltzeko ohitura hartzea ezinbestekoa da, baina Debagoienean urte asko pasa ditugu, larregi, hara eta hona joateko zerbitzu eskasarekin .**

**> Herritarrei galdetu**
**Proiektu polemikoen gaineko erabakiak herritarrek hartu behar dituzte, eta ez da inongo erakunde armatu ezta Madrilgo auzitegien eskuetan utzi behar, kontrakoa baizik.**

**AHT** > ELKARRETARATZEA

# 150 lagun inguru bildu ziren atxiloketak salatzeko

Urbinan atxilotuak aske daude dagoeneko, beti ere epaiketaren zain

**TXOMIN MADINA** > BERGARA
*Desobedientzia da bidea, denon artean AHT gelditūko dugu* leloa zeraman pankartaren inguruan, 150 bat lagun elkartu ziren egubakoitz iluntzean Bergaran egindako ekitaldian. Euskal Herriko hainbat puntutan deitu zituzten ekimenak eta helburua zen pasa den astean Urbinan gertatutako istiluetan egindako atxiloketak salatzea. Bergaran, plazan egin zuten elkarretaratzea, eta ordu erdi inguru iraun zuen.

**ATXILOTUAK, ASKE**
Mila Elortza AHT Gelditu! Elkarlaneko kideak jakinarazi digunez, epailearen aurrean deklaratu ostean atxilotuak aske daude dagoeneko, beti ere epaiketaren zain. Elortzak uste du luze joko duela guztiak; bere esanetan, Ertzaintzak aurkeztutako atestatua osatzen ari baita oraindik ere. Elortzaren iritziz, atestatu hori nahiko ahula da, eta ez da argi geratzen atxilotuak izan zirenik istiluak hasi zituztenak.

Atxilotuei desorden publikoa maila gorenean egozten zaie. Desorden publikoak egotzita, normalean hiru hilabetekoak izaten dira zigorrak, baina kasu honetan, maila gorenean izanda, hiru urtekoak dira eskatutako zigorrak.

**IKERKETA** > LABORATEGI BERRIA GARAIAN

# Eskola Politeknikoak energia berriztagarriei helduko die

Laborategi berrian 1,3 milioi euro inbertitu dituzte, eta 30 ikertzailek jardungo dute energia berriztagarriak lantzen


Argazkian, joan den eguenean Garaian egindako aurkezpeneko irudi bat. ARRITXU BARRUSO

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Mondragon Unibertsitateak Erdi Tentsioko Potentzia Elektronikako Laborategia inauguratu du asteon Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak Garaia Berrikuntza Gunean dituen instalazioetan. Egueneko inaugurazio ekitaldian, Industriako sailburuorde Ignacio Telletxea eta Goi Eskola Politeknikoko zuzendari Vicente Atxarekin batera, Hezkuntza Saileko, Hezkuntza Ministerioko, Diputazioko eta Mondragon Taldeko ordezkariek hartu zuten parte.

Estatuan dagoen horrelako laborategi bakarra dela eta energia berriztagarriak sortzeko orduan aurrera pausu garrantzitsua suposatuko duela azpimarratu zuten eguenean. Laborategi berrian 1,3 milioi euro inbertitu dituzte, eta 30 ikertzailek lan egingo dute bertan, urteko aurrekontua milioi bat eta erdi eurotik gorakoa dela. Instalazioek potentzia handiko eta erdi tentsioko elektronikako sistema berrien inguruan sortzen diren ikerketa guztiei buruzko entseguak eta ebaluazioak egiteko aukera eskainiko diete ikertzaileei.

**HAINBAT ALORRETAN APLIKAZIOA**

Aipatutako ikerketak hainbat alorretan aplikatu ahal izango dira: energia garbi eta eraginkorra sortzeko prozesuetan; iturri berriztagarrietatik datorren energia era hoberenean integratzeko aukera eskainiko duten banaketa-sare elektriko malguetan; kosteak murriztuko dituzten eragingailu industrial eraginkorragoetan; eta, azkenik, trakzio elektrikoko sistema seguru eta eraginkorretan. Aipatutako jarduera-alorrak potentzia-elektronikako sistemen aplikazio-esparru handiaren adibideak dira. Potentzia handitzea da sistema horien joera, eta erdi-tentsioan lan egitea. Goi Eskola Politeknikoak beste urrats bat eman du ikerketa-alorrean, Erdi Tentsioko Potentzia Elektronika sustatzeko eta hori azkarrago ezartzeko beharrezko aurrerapenak garatzeko bidean.

**ENPRESA**

# Fagor Mueble AEBetan lanean

Sukaldeen eta bainuen muntaia lantzen Marylanden eta Washingtonen

**E.M.** > BERGARA

Fagor Mueble enpresa AEBetako merkatuan sartu da lehenengoz. Bi proiektu berri dauzka: Maryland hirian bata, eta Washington DCen bestea. Horien bidez, sukaldeen eta bainuen muntaia egingo dituzte, etxeetan zein luxuzko apartamentuetan. Leire Agirrebeña Fagor Muebleko Export Managerrak zera adierazi du: "Bi proiektu hauek abian jartzeak erronka handia suposatzen du guretzat eta, aldi berean, Estatu Batuetako merkatuan sarrera irmoa gure enpresarentzat. Ziur gaude jarraipena izango duela epe laburrera".

Marylanden, National Harbor hiriko portuan hain zuzen, eraikin baten ekipamendua egiten dabil Fagor Mueble. Washington DCren kasuan Iridium proiektua garatzen dihardute hiri erdian dagoen Pennsylvannia Avenue kalean, bertako luxuzko apartamentuetan. Bi kasuetan ere merkatuaren beharretara egokitzeko produktu berriak garatu dituzte: egurrezko ateak txertatutako hagaxka metalikoekin edo neurri eta modulu bereziak tamaina handiagoko etxetresnak izateko.

**ENPRESAK** > CEGASA

# Pilak Txinatik ekarri eta gainerako jarduerak indartzeko asmoa du Cegasak

Enpresak dio pilekin 23 milioi euroko galerak izan zituztela iaz; enplegua erregulatzeko txostena ondo aztertzea eskatu dute langileek

**E.M.** > BERGARA

Enpresako ikurra izan diren pilen produkzioa geratu zuen Cegasak joan den abenduaren 12an. Antza denez, erabaki hartzea ez da erraza gertatu enpresa barruan, baina aurrerantzean pilak Txinatik ekarriko dituzte. Enpresaren asmoa zera da: indarrak gainerako jardueretara (bonbillak, trafiko ekipoak, etxetresnak edo erreminta elektrikoak) bideratzea eta pilak Txinan produzitzea.

Enpresaren arabera, kontsumoko pilen produkzioak 23 milioi euroko galerak ekarri zizkion joan den urtean, enpresaren fakturazioaren portzentaje altua hain zuzen ere. Cegasako iturriek adierazitakoaren arabera, pilak kostetik beherako prezioan saltzera behartuta daude gaur egun. Asian egindako pilak Cegasako produkzio kostearen %20tik beherako prezioan saltzen dira Espainiako Estatuan. Cegasako bezeroak hipermerkatuak dira nagusiki: prezioak %30 jaistea eskatu zieten Cegasako arduradunei, baina Juan Zelaia (Oñati, 1920) enpresako jabearen ezetza jaso zuten. Horren ondorioz, eskabide-zorroa 184 milioi unitatetan jaitsi omen zen. Pilen sektorean AEBetako eta Japoniako markek eta *Made in China* markarekin datozen produktuek agintzen dute gaur egunean.

**LAN ERREGULAZIOA**

Edozein modutan, aipatutako argudioekin ez daude guztiz ados Gasteizko Cegasako langileak. lan erregulazio txostenaren ondorioz, 360 langile izatetik 120 izatera igaroko dira, aurre-erretiroak eta saritutako bajak tarteko. ELA sindikatuak enpresak galerarik ez duela salatu du eta Eusko Jaurlaritzari enplegua erregulatzeko txostena zehatz-mehatz aztertzeko eskaera egin zion. Bien bitartean, protesta ekitaldiekin jarraitzen dute langileek. *Cegasa a China y yo a la puta ruina* izan da erabili izan duten leloetako bat.

**13 HERRIALDETAN**

1970eko hamarkadan hasitako enpresaren dibertsifikazioaren ondorioz, pilez gain, linternak, bonbillak, etxerako tresneria, industria eskularruak, trafiko seinaleak, erreminta elektrikoak eta bestelako produktuak egiten ditu Cegasak. 13 herrialdetan dituzte lantegiak, 200 milioi euro inguruko fakturazioarekin. 2005ean etxetresnen Solac firma erosi zuten eta 2006an Decor; lapikoak eta sukalde ontziteria.

**KRISIA**

# 496 lan erregulazio txosten iaz EAEn

**E.M.** > BERGARA

Jaurlaritzak 496 lan erregulazio txosten onartu zituen iaz. Hain zuzen ere, aipatutako 496 txostenek Euskal Autonomi Elkarteko 12.794 langilerengan izan zuten eragina (2007an baino 7.979 langile gehiago). Urtarrilean zehar 77 lan erregulazio txosten berri aurkeztu dituzte: sei Araban, 52 Bizkaian eta 19 Gipuzkoan. Gipuzkoari dagokionez, 4.504 langile izan ziren kaltetuak lan erregulazio txostenen erruz. Sektoreka industria izan da kaltetuena, eta bereziki automobilgintzarekin lotutako enpresak.

auzorik auzo

**ARANTZAZU** > Aurkezpen handirik behar ez duen auzoa da Arantzazu. Aloña, Elgea eta Urkilla mendi artean dago, mendi malkar ugariz inguratuta. Bada, hamabostean behin batzartzen dira auzotarrak.



Javier Arregik garai batean auzo-eskola egon zen lekua erakutsi digu. ARANTZAZU EZKIBEL

**Javier Arregi** > Auzo-alkatea

# "Auzoak ez dauka irtenbiderik auzo-etxe barik, gainbehera etorriko litzatekeela uste dut"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Azpilleta baserriko semea da Javier Arregi. Azken urteak auzo-alkate lanetan eman ditu, eta bere "ametsa egia bihurtu" arte jarraituko duela dio; hau da, auzo-etxea errealitate bihurtu arte. Harekin izan gara auzoko gorabeherak aztertzen.**

**Gutxik jakingo dute Arantzazun auzo-eskola egon zela.**

Orain Arantzazuko aparkalekua dagoen tokian zegoen, hain justu. 1898an eraiki zen eskola-etxea, aurretik Uribarrira jaisten ziren auzoko umeak. Bi planta zituen: behean eskola, sukaldea eta komuna eta goian bi logela, sukaldea eta komuna. Bigarren solairu hark balio zuen baserriren batek su hartzen zuenean eraberritu bitartean hara bizi izatera joateko familia.

1961ean, autoen aparkalekua egiteko enbarazu zela-eta, bota egin zuten eskolatxoa.

**Gaur egun, auzotarren eskakizun nagusia auzo-etxea da.**

Auzo-etxea gura dugu. Ez baldin badaukazu non elkartu bilerak egiteko, auzoa maldan behera doa. Auzoak ez dauka irtenbiderik auzo-etxe barik. Ikusten denez, giza harremanak sortu eta auzoko giroa indartzeko balio du auzo-etxeak. Frantziskotarrekin akordiora iritsita, badugu lurra. Orain, dena antolatu eta etxea eraikitzea falta da.

**Noizko izango duzuen auzo-etxea jakiterik badago?**

Ez, ez naiz ausartzen datarik ematen, oraindik batzarrak egin behar ditugu-eta. Baina gauzak ondo badoaz, aurten jarriko dugu martxan.

**Gainontzekoan, ze arazo ikusten dituzu auzoan?**

Adibidez, lurrikarekin arazoak ditugu. Errepidea ere gaizki dago; baina Diputazioak sanea-mendu lanak egin behar ditu, eta hori egin ostean konpondu-ko dute errepidea.

Bestalde, baserrietarako bide batzuk oraindik asfaltatu barik daude; adibidez, Azpilleta inguruan eta Bellotza inguruan.

**Gaur egun zenbat baserri daude auzoan?**

Guztira 32 baserri daude; horietatik lau hutsik daude eta beste bostetan bertan bizi dira. Biztanleei dagokienez, 1901. urtean 304 bizi ziren Arantzazun; 1950ean 524; 2000. urtean 119; eta 2005. urtean 100. Kontuan hartu behar da horietatik asko fraideak direla. Egun, 34 fraide daude.

**Auzoan zehar egiteko ibilbide bat proposatu.**

Jendeak asko egiten duena da Kortakogainen hasitako zazpi kilometroko ibilbidea. Mendietxebarrira joan eta auzoari bueltа osoa eman, harrobiraino.

Beste ibilbide bat, antzinakoa, Jaturabetik eta Arrikrutzetik gora Gesaltzara doana da. Errotatik pasatzen da, eta Iritegi ur-jauzia ere ikus daiteke.

**Mugarriaundi ere badago.**

Inork ez daki argi zer den, baina Araba eta Gipuzkoa arteko mugarri nagusia dela diote. Lurrean dagoen sei metro luzeko harria da, ikusgarria benetan. Sekillaga puntan dago (1.152 m).

ISTORIOAK

## "Irina eramaten zuten Arabara, eta handik ardoa ekarri"

Garai batean Arantzazun kontrabandoan ibiltzen ziren. Auzokoak, eta baita Oñatiko herritarrak ere, Arabara joaten ziren irina eramatera. Handik, aldiz, ardoa ekartzen zuten. Javier Arregik dio zaraitan ekartzen zutela ardoa, 70 litroko bota-ardo estilokoetan. Kontrabandoa zaintzeko, aldiz, mikeleteak egoten ziren bideetan; adibidez, gaur egun, Mikeletetxe bezala ezagutzen den etxean. San Juan Artia baserria –gaur egun jausita dago– benta bat zen. Hura Gipuzkoako baserri altuenetarikoa zen bere garaian. 900 metroko garaieran zegoen; Larraitzen ere ei daude altuera berean baserriak.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Urtarrileko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
40 euro abendura arte

SARRERAK
BRUESA GBC- IURBENTIA BILBAO BASKET
BRUESA GBC- CAJASOL
Bidali AG BRUESAIURBEN 5533 zkra
Bidali AG BRUESACAJA 5533 zkra

UMEENTZAKO LIBURUAK
Pamiela argitaletxearen umeentzako liburuak.
Bidali AG LIBURUAK 5533 zkra



ZIRA
EKFB Euskal Selekzioko zira bat.
Bidali AG ZIRA 5533 zkra



KAMISETA
DANBAKA
Danbakako kamiseta bat.
Bidali AG KAMISETA 5533 zkra



SARI NAGUSIA:
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
URDAIBAIKO URRESTI LANDETXEAN GAU BAT



www.toprural.com/urresti
Benetako landetxea Urdaibaien!
Taldeentzat %10-eko deskontua

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

'Crudo despertar' filma eskainiko dute eguenean Aretxabaletan, ingurumen hilabetearen baitan. Filmak, petrolioaren amaiera iragartzen du, gure gizarte ereduaren oinarririk garrantzitsuenetariko baten amaiera, hain justu. Hori, Ekologistak Martxan taldearen eskutik iritsiko da Debagoienera, eta taldeko kide Martin Mantxo izango da hitzaldiaz arduratuko dena.

**Martin Mantxo** > Ekologistak Martxan taldeko kidea

# "Gizarte eredua aldatzea da gakoa, eta ez petrolioari ordezko erregaia bilatzea "

MIREN ARREGI > BERGARA

**Ekologistak martxan taldean, Zor Ekologikoaren batzordean dabil lanean Martin Mantxo, euskal zor ekologikoa aztertzeko batzordean, hain justu. Harekin izan gara eguenean Petrolioaren gainean egingo duten hitzaldiaz berbetan.**

**Zor ekologikoa herri aberastuek herri txiroen kontura pilatutako zorra da, eta alde horretatik Euskal Herria ez da salbuespena, ezta?**

Noski. Eredu ekologikoari begira, ingurumena eta komunitateak zaindu gabe, etekin handiak ateratzen ari diren multinazionalak badira Euskal Herrian. Hau ez da salbuespena.

**Zein herrialde aztertu duzue?**

Ekuadorren, Nigerian eta Bolibian izan gara, eta bertan euskal enpresen eragina aztertu dugu. BBVAren kasua da bat. Hego Ameriketan, banku horrek petrolio ustiategiak finantzatzen ditu, baita urtegiak, zentralak eta paper fabrikak ere. Baina horretaz gain, armak egiten dituzten enpresak ere finantzatzen ditu. Iberdrolak ere, diskurtso berde bat izan arren, zentral nuklearretan asko inbertitzen du. Eusko jaurlaritzak ere badu esku hartzea halako proiektuetan.

**'*Crudo despertar*' filmak petrolioaren amaieraren gainean berba egiten du. Etorkizun hurbilean petrolio erreserbak agortuko direla esaten da bertan.**

Gure eredua petrolioan oinarritzen dela kontutan hartuta, beltz dago kontua, eta are okerragoa da ikustea gizarteak ez diola eredu horri uko egin nahi. Aldaketa klimatikoaz berba egiten dugu, baina ez dira neurri eraginkorrak hartzen. Gizartea alde horretatik irekiagoa da gobernuak eta multinazionalak baino, horiek hortik ateratzen dituztelako etekinak. Adituen arabera, 20-25 urte barru petrolioa agortu egingo da, eta ematen du hori iristen denerako ez dagoela alternatibarik petrolioari ordezkoa bilatzea baino.

**Petrolio konpainiek, baina, aurkitu zituzten petrolioa ustiatzeko beste toki batzuk.**

Bai, konpainiek ustiaketa batere egokia ez den lekuak bilatu dituzte petrolioa ateratzeko. Gehiegikeria handiak egin dituzte, hala nola oihanak edota itsasoak suntsitu. Gakoa, gizarte ereduan dago, konponbidea ez da petrolioa ordezkatuko duten erregaiak bilatzea. Kontsumo, eta petrolioarekiko dugun dependentziaren murriztea da etorkizun jasangarri baterako gakoa.

**Petrolioarekiko dependentzia ez da gehiegizkoa, baina?**

Petrolioaren prezioaren gorabeherak, adibidez, ekonomia handien eta multinazionalen etekinak babesteko egiten da, ez ordea ingurumena eta petrolio ustiategien inguruko komunitateak zaintzeko. Petrolioaren krisiaren eraginez etorri dira munduko krisi handienak eta hor ikusten da petrolioak duen boterea, eta petrolioarekiko dugun dependentzia. Multinazional handien artean bankuak, auto enpresak eta petrolio enpresak daude. Energia iturriak, gainera, munduko ekonomia krisien eta gerra guztien atzean daude, izan erregaia, izan petrolioa edo bioerregaia. Esaten dute Palestinan gertatzen ari den guztia Gazako gasa kontrolatzeko dela. Munduko beste toki askotan gertatzen da hori.

**"Administrazioan hipokresia izugarria dago; ingurumenaren kontra egiten duten guztia ikusi besterik ez dago horretaz ohartzeko"**




Sortzez nafarra, gaur egun Tolosan bizi da Ekologistak Martxan taldeko Martin Mantxo. GOIENKARIA

**Ze neurri hartu dituzte konpainiek eta gobernuek?**

Gobernuak dira multinazionalen alde egiten dutenak. Eta hori da Zapaterok berak egin zuena Repsol eta Boliviaren arteko krisia gertatu zenean. Sistema oso boteretsu garatu da eta oso zaila da aldatzeko, halako krisialdi batera iritsi arte behintzat. Petrolio konpainiek ez dituzte irtenbideak proposatzen, petrolio konpainiak diren heinean, euren helburua petrolioaren kontura aberastea delako. Alternatibak aurkituko dituzte, bioerregaiak adibidez, baina funtsean berdina izaten jarraitzen du erregaien ekoizpena. Eredua ez da horrela aldatzen, hori arazoa beste batez ordezkatzea da.

**Eta gizartearen eta herritarron eginbeharra kontsumo arduratsuari dagokionez?**

Irtenbideak eta proposamenak egitea da herritarron lana. Mugimendu sozialen bitartez, gu antolatzen, auzo mailan, proposamen desberdinekin… Hori da erronka, eta ez da erraza, baina zerbait lortu daiteke.

**Hala ere, beti egongo da kontsumitu behar hori.**

Arrazionatu egin beharko da, lehentasunak ipini. Bestelako moduak ere badira, eguzki plaken bidez dabiltzan autoak esaterako. Gauzak asko aldatu beharko dira.

**Eta gas naturala?**

Gauza bera gertatuko da, erregai guztiak lehenago edo beranduago agortuko dira. Euskal Autonomia Erkidegoan azkenaldian gas naturalaren aldeko apustua egin da. Hainbat zentral eraiki dira: Bahia de Bizkaia, Boroa… CO2rik igortzen ez dutela esaten dute eta hori gezurra da. Gainera, petrolioa bezala, gasa ere beste toki batzuetatik ekartzen da: Argelia, Trinidad eta Tobago eta Nigeriatik, esaterako. Gune horietan ingurumenean eta gizarte mailan egindako kalteak izugarriak dira. Eredua aldatu ezean gauzak aldatzea ezinezkoa izango da.


Erabateko isiltasuna, atera jaurti behar dute eta zu...
zure ekonomian pentsatzen?
Helbidera ezazu nomina kutxan.
LASAIAGO BIZIKO ZARA.
. Ordainketak diru-sarreretara egokituko dizkizu.
. Irtenbideak aurkituko dizkizu.
. Finantza-abantaila esklusiboak lortuko dizkizu.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

kale inkesta

# Asteburuko zikloia dela eta, hartu al duzu neurririk? Izan duzu arazorik?



**Silbestre Begiristain**
Erretiratua
Bergara

Nik badaezpada pertsianak jaitsi nituen, baina egia esan kalera trankil irten naiz, beldur barik. Goizean zehar, etxeko atarian argi gabe egon ginen, baina zapatuan bostak inguruan berriz ere itzuli zen.



**Belen Txintxurreta**
Langilea
Bergara

Ez dut beldurrik pasa, azken momentura arte ez nuen jakin eta zikloia zegoenik. Bolu inguruan bizi naiz ni, eta argia guztiz joan ez bada ere, telebista eta beste aparailu elektriko batzuekin bai izan ditugu arazoak.



**Josu Garitaonandia**
Langilea
Bergara

Hartu dudan neurria izan da etxetik ez irtetea zarata eta haize gogorrenak pasa arte. Bestela ez dut aparteko neurririk hartu. Hori bai, uste nuen ez zuela hainbeste iraungo. Errepidean-eta, ez dut arazorik izan.



**Esther Agirre**
Langilea
Bergara

Leihoetako gauzak erretiratu nituen , pertsianak bota ere bai, izan ere haizeak beldur apur bat ematen dit. Etxean ez zegoen urik, baina argia bai. Bazkaria genuen elkartean eta han berriz, ura bai, baina argirik ez.

irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

## goienkaria@goiena.com

ARRASATE
**> Arrasateko saihesbideak duen arriskua dela eta**
Herritar batek deitu du Arrasateko saihesbidearen egoera beste behin salatzeko. Egunero pasatzen da handik eta errepidean gero eta zulo gehiago eta handiagoak daudela kritikatu du. Diputazioari eskatu dio ahalik eta azkarren konpontzeko, zati horretan beste hildakoren bat egon baino lehen.

ZUZENKETA

## Urtarrilaren 12ko ASTELEHENEKO GOIENKARIAn Bergarako orriko udal finantziazioari buruzko mozioan akatsa

Bergarako udalbatzak abenduaren 22an eztabaidatu zuen Udal finantziazioaren gaineko albistea argitaratu genuen urtarrilaren 12an. Mozioa aho batez onartu zela esan genuen orduan, udal idazkariak emandako informazioa aintzat hartuta. Baina, errealitatea bestelakoa da. Mozioa onartu zuen udalbatzak, baina ez aho batez. Guztira, 16 zinegotzi joan ziren plenora (EAJko bat falta zen) eta bozketa honela gelditu zen: alde bozkatu zuten Udal Gobernua osatzen duten zinegotziek (9 boto); kontra EAJk eta PSE-EEk (6 boto) eta EAko zinegotzia abstenitu zen.

usteak uste

Xabier Urtzelai

# Bestelako krisia gurean

Besaide Mendi Elkartearen txanda iritsi da. Txanda diot, elkarte bat zuzentzeko ordezkariak bilatzearen arazoak lehenago ere beste elkarte askok izan dituztelako. ASTELEHENEKO GOIENKARIA honetan irakurri ahal duzue –26.orria– Besaidek bertan behera utziko dituela ekintza guztiak, baldin eta martxoaren 6ko batzarrean lan egiteko gertu dagoen talderik azaltzen ez bada, musutruk, noski –egun, ordaindutakoa gustura hartuko lukete askok.

Soldatapeko lana krisian dago baina lan boluntarioa ez dago egoera hobean. Eta ez da diruzaleak garelako, konpromisorik gura ez dugulako, baizik. Badago zertan hausnartu, herriko elkarte horien egituren gainean, batez ere. Akaso, ez du zertan boluntarioa izan behar.

zorroztailea



Elena Laka

# Haizetearen ondarrak

"Zikloiak eragozpen handiak sortu ditu, baina kalte pertsonal larririk ez. Haizeak gehienez 167 kilometro orduko abiada hartu du, baina denboralea bukatzen ari da. Milaka euskal herritar argindarrik gabe daude. Eibarren Ipurua kiroldegiko teilatuareako zati bat jausi da, eta gaur Nastic-Eibar futbol partida ez dute jokatuko"


Harian
Zikloiak 250.000 lagun inguru utzi ditu argindarrik gabe

Berria > 2009-01-25

Etorri zen haizetea, joan zen argi-indarra, eta gure mundua zartatu egin zen. Zapatu goizean egunerokoa kataklismo txikia zen geurean: dutxa bero eta kaferik barik. Eta ondorengo guztiak: ez irratirik, telebistarik, internetik, garbigailurik, sukalderik, berogailurik. Gaitz erdi artean ez zela gaua, eta urtarrileko argitasun apurra behintzat bageneukala. Elektrizitate-ezak isiltasuna ekarri zuen etxeetara. Beranduago, eguerdi-partean, bazkariaren galdera handia: ez geunden egun batekoagaitik bezperako ogian sartutako gaztai zatia jateko. Elektrizitate-ezak isiltasuna ekarri zuen etxeetara eta aldi berean bizitzak ez zuen bizitza ematen, gabezi-zerrenda bat baizik.

Gogoan dut Bosniako gerrak zelako eragina sortu zidan orain dela hamasei urte, telebistaz ikusitako gerren artean beharbada orduarteko eraginik handiena. Hain zuzen medioetan ikusten genituen pertsona haiek gure igual-igualak zirelako. Eraso militarra hasi baino minutu bat lehenago gure bizimodu berdin-berdina zutelako. Gureak bezalako etxeetan bizi zirelako, gureak bezalako lanetan zihardutelako, geureak bezalako erosotasunak zeuzkatelako. Egun batetik bestera euren bizimodua ezaugarririk barik geratu ziren, eta horrek egin zituen ezinduago. Justu gure moduan. Pentsatu nuen orduan zelako bizi-iraupena eduki nezakeen nik gerra batean, berbetan eta zerbait idazten baino ez badakit, eskuekin ezer egiten jakiteke. Hutsa, argi-indarra joan zaidanean moduan.

**"Elektrizitate-ezak isiltasuna ekarri zuen eta ez zuen bizitza ematen"**

**"Eskasiarako ohituak ez gauden señoritoak gara, pribilegiatuak"**

Zeren geure bizimoduaren baloreen artean lehenetsi dezakegu segurtasuna, Bushek bezala, ala askatasuna eta eskubideak, Obamak legez. Baina Europako bazter honetan bizi garen oasian, munduko biztanleen heren batek gutxienez amesten duen honetan, ongizatea dugu ikur, biztanleon bizi-maila ona. Segurtasunari, askatasunari, aberastasunari, ongizateari esker gure bizitzak erosotasun handia du. Eskasiarako ohituak ez gauden señoritoak gara, seguru asko eboluzio eta mutazioen ondorioz irauterik izango ez dugunak.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Mirian Biteri, Txomin Madina,Xabier Urtzelai **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



> ARRASATE
Santa Marina kalea eraldatu egingo dute irisgarritasuna bermatzeko > 14



> BERGARA
Aratusteak indartzeko asmotan, mozorro afaria egingo dute aurten zapatuan > 16



> ARAMAIO
Eskolako gurasoek antolatuta, elkarbizitzaren aldeko jai erraldoia egin zuten zapatuan > 20

**ELGETA** > AHOTSAK.COM

# Omenaldi beroa jaso zuten 30 bat elgetarrek egubakoitzeko ekitaldian

**ESPALOIA, BETETA**
Omenduak eurak ez ezik, senideak ere hurbildu ziren ekitaldira.

**OROIGARRIAK**
Proiektuan parte hartu dutenek euren elkarrizketak biltzen dituzten grabazioak jaso zituzten



Omenduek familia-argazkia atera zuten ekitaldiaren ostean. T.M.

**TXOMIN MADINA** > ELGETA
Hunkigarria, baina aldarte eta umore onez betea, halakoxea izan zen *ahotsak.com* egitasmoan parte hartu duten elgetarrek egubakoitzean jasotako omenaldia.

Oxel Erostarbe alkateak eskerrak emanez hasi zuen ekitaldia. *Ahotsak.com* proiektuan testigantza eskaini duten herritarrei eman zizkien eskerrak; baita Badihardugu elkarteari proiektua bultzatzeagatik eta Goibeko kultura elkarteari herriko euskara mantentzeko egindako lanagatik ere. Erostarbek gaineratu zuen Udalak egitasmoarekin jarraitzeko asmoa duela.

Proiektuan parte hartu duten elgetarrei elkarrizketak egiten ibilitako Iban Arantzabalek hartu zuen ondoren hitza, eta azpimarratu zuen, eurei esker, Elgetako berbak eta esaldiak ikasteaz gain, galdutako jolas, ohitura eta lekuei buruzko informazioa ere eskuratu ahal izan zutela.

**PASARTEAK GOGORATUZ**
Zenbait arazo tekniko gainditu ostean, omenaldiko protagonistek kamara aurrean esandako hainbat pasarte ikusteko aukera izan zuten Espaloia bete zutenek. Txikitako pasadizoak, jolas kontuak, gerra garaikoak... Senide eta lagunei irribarre eta barre algara ugari eragin zizkieten pasarteek.

Bakoitzak egindako elkarrizketen kopiak banatu zizkieten omenduei; eta amaiera gisa, afari-merienda ederra egin zuten han bildutakoak. Orduan ere, euskara paregabean, lehengo eta oraingo kontuak izan ziren nagusi.

OMENDUEK ESANAK



**Lucio Sarasketa**

"Oso pozik nago gaur hemen jaso dugun omenaldiarekin. Proiektu hau oso garrantzitsua iruditzen zait bai guretako eta baita gure ondorengoendako; izan ere, pena handia ematen dit gazteek lehengo kontuei buruz interes gehiegi ez dutela ikusteak".



**Miren Lorea Billar**

"Oso ideia ona iruditzen zait *ahotsak.com* proiektua. Nik umetako kontuak kontatu ditut, umetako jolasak, txirikilean-eta halakoak. Nere bilobek, adibidez, ez dute jolas hau ezagutzen. Omenaldia egingo zigutela jakitean, asko hunkitu nintzen".



**Sebastian Arantzabal**

"Txikitan, gerra denboran bizitakoak kontatu ditu nik. Nik uste dut garai batetik hona asko indartu dela gazteek lehengo gauzak jakiteko duten nahia, eta hori ona da. Internet bidez zabaltzea ere primeran dago, hala euskara munduan ezagutzera emateko".



**Arantzazu Arantzeta**

"Omenaldia oso ondo egon da. Hitz egin dutenek ere, ederto jardun dute; grabazioen bideoa ikusteko asmoa ere badut. Nik gerrako istorioak kontatu ditut; halere, uste dut gazteei ez zaizkiela kontu hauek interesatzen, urte asko pasa dira-eta".



**Miren Arantzeta**

"Ez nuen halakorik espero, oso pozik nago gaurko omenaldiarekin. Ez dakit gure kontuak interesgarriak izango diren, baina tira, gaurko gazteei gustatzen zaie lehengo gauzak jakitea, eta baita guri kontatzea ere. Gogoratzeko ere balio izan dit".

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
2009ko urtarrilaren 26a

**EGURALDIA** > ZIKLOIA

# Errepideetan eta argi-indarrean kalteak eragin zituen zikloiak

Antzuolan eta Bergarako hainbat auzoetan argi barik egon ziren domeka goizera arte

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Normaltasuna itzuli da berriro gurera, egubakoitz gauetik zapatura bitartean Debagoiena eta Euskal Herria ederto astindu zuen zikloiaren ondotik. Hasieran aurreikusitakoa baino eragin gutxiago eduki zuen, agian hartutako neurriengatik. Zorionez, kalte pertsonalik ez zuen eragin; bai, ordea, materialak.

Erakundeek eta herritarrek arduraz jokatu zuten. Hala, hainbat tokitan neurriak hartzeko gomendioa egin zuten arratsalde partean. Arrasateko Udalak, esaterako, oharra kaleratu zuen horren harira. Udaltzainek, gainera, tabernek ohi baino lehenago itxi zezatela gomendatu zuten. Ordurako indartsu zebilen haizea eta gauean lehenengo arazoak eragin zituen: Bedoña eta Udala auzoetara doazen errepideetan zuhaitzak jausi ziren eta Elgeta argi-indar barik utzi zuten. Laster konpondu zituzten arazoak.

Bergaran, Aretxabaletan, Antzuolan eta Aramaion denbora gehiago behar izan zuten argi-indarra berreskuratzeko eta horrek arazo asko eragin zituen. Bergara herri kaltetuenetarikoa izan zen. Agorrosin kiroldegia goizean itxi zuten; eta gauza bera egin behar izan zuten Bidebarrieta kaleko Eroskik edo Leize jantzi dendak, esaterako. Beste hainbat saltokietan, eraikin publikoetan eta etxeetan halamoduz moldatu ziren. Simon Arrieta plazako etxebizitzak igogailu barik geratu ziren eta hamargarren pisuan bizi zirenak eskailerak erabili behar izan zituzten ogia erosteko. Argi-indar barik gaur egun ez garela ezer komentatu zion hango bizilagun batek ondokoari Bolintxo okindegian.

**ASPALDIKO TRESNEKIN**

Aramaion ere trabak eduki zituzten. Plazako Ormaetxea dendan ateko pertsiana bakarrik zabaldu zuten, eskuz igotzen delako. Ondoko leihokoa automatikoa da eta ezin izan zuten ireki. Jakiak pisu zaharrarekin pisatu zituzten eta denda argiztatzeko kanpin-gasa erabili zuten. Hestebeteak, bestalde, labanarekin moztu zituzten; baina, etxekoendako bakarrik.

Argi-indarra eguerdi partean bueltatu zen toki gehienetara. Antzuolan, Bergarako hainbat auzotan eta Aramaion, hala ere, domeka goizeraino ez zen itzuli.



Asentzion elektrizitate zutoina bota du haizeak. MIRIAN BITERI



Pinuak errepide erdira jausi ziren zapatu goizaldean Asentzion. JOSETXO ARANTZABAL




Bergarako Bidebarrietako Eroskik ateak itxi behar izan zituen. M.B.



Ubera ondoko pinudian kalte handiak egon dira. J.A.



Suhiltzaileak Musakolako teilatu batean. J.A.



Aramaioko Ormaetxea jaki denda, argi barik. XABIER URTZELAI




Edukiontzia lorategian jausita; atzean, Leize jantzi denda itxita azaltzen da. M.B.

**BERGARA** > SAN PAULO JAIAK UBERAN

# Argi-indarrak kale egin zien arren, jaiak aurrera egin zuen

Eguraldi txarrari aurre eginez, logotipo eta patata-tortilla lehiaketak, herri kirol eta dantza erakustaldiak eta beste egin zituzten

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA
Asteburuan San Paulo jaiak ospatu dituzte Uberan. Egitarau mardula prestatua zuten, baina ezin izan zituzten ekintza guztiak egin. Hain zuzen ere, argi-indarrak kale egin zien eta, horren ondorioz, mus txapelketa bertan behera utzi zuten; beste guztia egin ahal izan zuten.

Hala, logotipo lehiaketaren irabazlea Leintz Gatzagako Nerea Gaztelu izan zen –familia dauka Uberan– ; eta patata-tortilla onena egin zutenak Irene Zenitagoia eta Maddi Gutierrez ama-alabak izan ziren.

**HERRI KIROLAK ERE BAI**
Hamaiketakoa egiteaz eta Uberako sagardoa dastatzeaz gain, herri kirolen probak egin zituzten. Hala, *Bihurri* egurra mozten ibili zen; Flores aizkolariak ere esku hartu zuen; eta Ostolaza esku batekin 200 kiloko harria jasotzen saiatu zen, baina mina hartu zuen. Gaur, astelehena, meza izango dute 11:00etan; eta horren ostean, salda eta txorizoa.


Bederatzi lagun ibili ziren patata-tortillak egiten. JOSETXO ARANTZABAL


Logotipo eta patata-tortilla lehiaketen sari banaketa egin zuten. J.A.

**BERGARA** > SAN BIXENTE JAIAK PARTEITTIN

# Jendetza handia bildu zen Parteittin, San Bixente jaian

Auzo txikia izan arren, izen handia daukate Angiozarko auzo horretako San Bixente jaiek

**I.B.** > BERGARA
Angiozarko Parteitti auzoan urtean egun bakarrean ospatzen dituzte San Bixente jaiak. Auzo oso txikia den arren, jende asko gerturatzen da hara, eta aurten ere hala izan da: bergararrak, elgetarrak, aramaioarrak, legutioarrak, arrasatearrak eta beste izan dira han.

Halakoetan ohitura den moduan, eguerdian, 12:00etan, meza esan zuten San Bixente ermitan. Seguruenik eguraldi eskasak lagunduta, herritar asko joan ziren hara. Horren ostean, abadeak, ohitura duen moduan, Parteittiko ganaduak eta soroak bedeinkatu egin zituen. Ordurako, jende ugari bildu zen ermita inguruan jai usainean.

**ETXOSTEAN, PRIMERAN**
Jarraian hamaiketakoa egin zuten Zabarteko etxostean –gainezka egon zen– eta salda eta txorizoa barra-barra jan zuten. Are gehiago, erromeria eta guzti izan zuten, nagusienen gozamenerako.

Pena bakarra Arrasateko Kataideko aurtengo txakolina dastatu ezin izana. Etiketekin jarri dizkioten traben ondorioz, iazkoa eraman zuten.


Erromeria jendetsua izan zuten Zabarteko etxostean babestuta. J.A.


Meza esan ostean, abadeak ganadua eta soroak bedeinkatu zituen. J.A.


J.A.

**ARETXABALETA** > MARIHUANA

## San Kanuto jai arrakastatsua

**Marihuana legeztatzearen alde Aretxabaletan egiten duten San Kanuto jaia klasikoa bihurtu da dagoeneko. Ez hori bakarrik, geroago eta jende gehiago batzen ditu helburuak eta egitarauak; ia-ia Aretxabaletako urteko jai egunetako bat bihurtu da. Bolo txapelketa, herri bazkaria, antzerkia, jokoak, Orkresta Nazionalak girotutako kalejira (argazkian), kontzertuak eta beste egin zituzten. Oso harrera ona izan zuten antolatutako ekitaldiek eta gustura gelditu ziren antolatzaileak.**

**ZERBITZUAK** > PUNTU ILUNAK

# Zerrajerako iluntasunak hainbat kexu eragin ditu

Zerrajeran egokitutako aparkalekuan argi falta dagoela-eta hainbat kexu izan dira herrian; obrek eraginda fokuen kablea eten egin zela argitu dute Udaletik

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Arrasate eraldatzen doan neurrian, obra eta berrikuntzen eraginez, gune berriak agertuz joan dira, etxeak eraikitzearen ondorioz batez ere. Zerrajera gunera edo Gelma gunera (Zabalgunea) begiratu besterik ez dago hori argi asko ikusteko: kale berriak eta, besteak beste, aparkatzeko gune berriak sortu dira inguru bi horietan.

**ZERRAJERAN, ILUN**

Bada, justu Zerrajerako aparkalekuarekin lotuta kezka mezuak iritsi zaizkigu azken hilabeteotan. Emakumeenak, kasu horretan. Diotena da autoa Zerrajerako aparkalekuan utzi duten aldietan, ilunduz gero, norbaitek lagunduta joan behar izan dutela; eta bakarrik joanez gero, berriz, errespetu handiarekin joan direla, euren buruaren segurtasunarekin kezkatuta.

**ARAZOA KONPONDUTA**

Bada, arazoa konponduta dago. "Gune hura aparkaleku moduan egokitu eta berehala ipini genituen fokuak. Arazoa izan da obrengatik fokuen kablea etenda izan dela", aditzera eman dute Udaleko Obra eta Zerbitzu Sailetik. Era berean, argitu gura izan dute modu ofizialean, behintzat, inork ez duela halako kexurik aurkeztu udaletxean. Obra eta Zerbitzu Saileko batzordeburuak gaineratu du udalerriari orokortasunean begiratuta udal agintariek ez dutela halako gune edo "puntu ilun" gehiago dagoen "pertzepziorik" izan.



Zerrajeran eraikitako etxe berrien atzeko partean egokitu zuen Udalak behin-behinerako aparkalekua. JOSETXO ARANTZABAL

**GAMEIKOA, LASTER**

Adibide bat ere ipini dute: orain egokitzen dabiltza lehengo Gamei fabrikaren aparkaleku zati bat, ospitaleko erabiltzaileendako. Eta, esan dutenez, "laster" zabalduko dute aparkaleku hura, "9-12 egun barru", eta harako argiteria berezia prestatu dute: "Orain ikusi egin behar nahikoa den", gaineratu dute: "Bertako argiteria (Gelmakoa) aprobetxatuko da eta nahikoa den aztertuko dute; hala ez bada, zerbait gehigarria jarriko da".

Bukatzeko, azpimarratu gura izan dute halako edo bestelako kexaren bat dutenean "berehala ahalegintzen" direla konponbidea ematen.

BESTE IKUSPUNTU BAT

### Udaleko Emakume Sailak egindako hausnarketa

Puntu ilunen harira azaldu diren kexa horiek ikusita, Udaleko Emakume Sailetik honako hausnarketa egin gura izan dute: "Argi falta askotan emakumearen beldur edo erasoekin lotzen da, baina muinean dagoena da emakumeak erasotzearen zergatia. Hau da, erasoak ezin dira esan ilunetan gertatzen direnik; normalean, emakumeak erasotzen dituztenak pertsona horren hurbilekoak dira eta ilun egoteak ez du hori areagotzen. Adibide bat: Donostiako jaietan gertatu zen bortxaketa. Emakumea taxian joan zen portaleraino (kalea argituta zegoen), baina atea irekitzekoa zenean bortxatu zuten. Gure ustez, emakumeen beldurrak uxatzeko benetako formazioa behar da, emakumeak askeak izan daitezen eta askatasun osoz egunerokotasunari aurre eginez. Horrek ez du esan nahi Udalaren ardura ez denik argiak ipintzea, bai noski, haren eginbeharra ere bada. Udalari dagokio herritarren eskaerei aurre egin eta ahal duen neurrian erantzun".

**OBRAK** > SANTA MARINA KALEA

# Santa Marina kalea eraldatu egingo dute 2009. urtea bukatu baino lehen

Hainbat maila ditu Santa Marina kaleak eta maila bakarrean utzi gura du Udalak, irisgarritasuna bermatzeko

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Obenerrekako bidegurutzetik hasi eta Agerreko biribilguneraino zatian obrak egin behar dituzte; bestela esanda, Santa Marina kaleko lehen ataritik 24. atarirainoko tartean.

Oro har, Santa Marina kalea eraldatuko dute; izan ere, gaur egun bi mailatan dagoen kalea maila bakarrean utzi gura dute.

Besteak beste, kalearen irisgarritasuna bermatu egingo dute, eta, oro har, kalea hobeto antolatuta geratuko da. Hala azpimarratu dute udal ordezkariek. Horrekin batera, bestelako egokitzapen lan batzuk ere egin beharko dituzte: etxeetarako sarrerak egokitu, eskailerak, espaloiak berregin… Oro har, obra handia da egin beharrekoa. Eta horren harira aditzera eman dute zatika egin beharko dutela. Are gehiago, automobilendako, adibidez, itxi egin beharko dute Santa Marina kalea, zenbait egunetan behinik behin.



Argazkian, Santa Marina kalea, mailakatuta. U.M.

## oharrak

HAUTESKUNDEAK

**> Eusko Alkartasuna**

Alkartetxean, Eusko Alkartasunaren egoitzan, dagoeneko badabiltza posta bidezko botoak jasotzen. Iragarri dute egunero egongo direla lan hori egiten, 19:00etatik 20:00etara.

LANPOSTUAK

**> Emakume Txokoa**

Emakume Txokoko dinamizatzailea kontratatuko du Arrasateko Udalak, funtzionario moduan. Oposizio eta lehiaketa bidez aukeratuko dute funtzionario berria. Eta hor parte hartzeko izena eman behar da aldez aurretik. Hain justu ere, gaur hasita 20 laneguneko epea dago izena emateko. Biztanleen Arreta Zerbitzuan eman daiteke izena.

ETXEBIZITZAK

**> Azkeneko egunak**

Oraingo asteko egubakoitzean, urtarrilaren 30ean, bukatuko da La Caixa Zerrajeran eraikitzen dabilen 148 etxebizitzen zozketan izena emateko epea. Babestutako errenta izango dute etxebizitza horiek: hilean 270 euro baino gutxiagokoa. Etxebizitzen zozketa martxoaren 26an egingo dute.

ODOL ATERATZEAK

**> Eguazten eta eguenean**

Urtarrilari dagokionez, oraingo asteko eguazten eta eguenean (urtarrilaren 28 eta 29an) etorriko dira azkeneko aldiz Arabako Odol Emaileen Elkartekoak, Arrasaten odol ateratzeak egitera. Ordua eta lekua betikoak dira: Arrasateko osasun etxean, 16:30etik 20:00ak bitartean.

NORTASUN AGIRIAK

**> Ez dago txandarik oraingo asteko hitzorduetarako**

Nortasun agiriak egiteko txandekin lotutako oharra ere helarazi digute Biztanleen Arreta Zerbitzutik, jakinarazteko dagoeneko ez dagoela txandarik biharko, martitzena, eta eguenerako. Gogora ekartzen dute datozen hilabeteotan atzera ere etorriko direla nortasun agiriak egin eta berritzera eta data zehatzak jakiten dituztenean zabalduko dituztela txandak hartzeko epe berriak.

**GIZARTE ONGIZATEA** > DROGA MENDEKOTASUNAREN PREBENTZIOA IKASTETXEETAN

# Eskolak eta familiak bat, ikasleei drogen alde ilunen berri emateko

Agipad elkarteak ikasleen droga mendekotasuna prebenitzeko kanpaina abiarazi du; irakasle eta gurasoen artean bitartekaritza lanak egingo ditu

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Azken ikasturteetan ohikoa denez, drogen prebentzio eta gehiegizko kontsumoaren laguntzarako Agipad elkarte gipuzkoarrak ikasleengan droga mendekotasuna prebenitzeko kanpaina abiarazi du Arrasateko hiru ikastetxetan; Arrasate Institutuan, Arizmendi ikastolan eta Lanbide Hastapen Eskolan. Institutuan DBHko 3. mailako eta batxilergoko 2. mailako ikasleek hartuko dute parte eta Arizmendin, berriz, DBHko 3. mailakoek bakarrik. Azkenik, Lanbide Hastapen Eskolako ikasle guztiek izango dute ekimenaren berri.

Bestalde, Agipaden kanpaina horren helburu nagusiak dira nerabeen arteko bizimodu osasuntsuak lortzeko jarrerak sustatzea eta drogen kontsumoari lotutako arriskuen kudeaketan jokabide arduratsuak bultzatzea.

## Helburuak

**Ikasleei begira:**
1.- Ikasleek hurbilen dituzten drogei buruz informatzea
2.- Drogen erabilera desegokien arriskuak ezagutaraztea
3.- Ikasle bakoitzak egiten duen kontsumoaren hausnarketa
4.- Drogen kontsumoak ikasle bakoitzarentzat duen funtzionaltasunaren azterketa

**IRAKASLE ETA GURASOAK, BAT**
Agipad elkarteak honako proiektua eskaini dio Arrasateko Udalari: nerabeen droga kontsumoaren aurrean eskolaren eta familiaren arteko bitartekaritza lanak egitea. Ekimen horretan parte hartuko dute droga kontsumoen egoera nabariak erakusten dituzten gazteak. Helburua da, esku hartze hezitzaile eta lagun-egitearen bitartez, familiari egoera gainditzen laguntzea eta nerabearen hasierako droga kontsumoa oztopatzea.

Hala, ikastetxean kasua atzeman eta familiak laguntza onartu eta gero, Agipadeko aditu bat jartzen da harremanetan familiarekin, ikastetxean bertan egingo diren bileretan.

Ekimen berezi horretan Arrasateko Udalak 4.170 euro gastatuko ditu.




Material Rechazado, *Revolution song* kantuan azaltzen dutenez, agertokian irauli egiten dira. IMANOL SORIANO

**MUSIKA** > GIPUZKOAKO PUNK-OI! MUGIMENDUA

# Aurten Arrasatera dator 'Holidays in Bardulia'

Otsailaren 13an eta 14an 13 talde pasako dira gaztetxetik; sarrerak, gaurtik aurrera salgai

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Bi gau –eta egun– ero, 13 talde oldarkor eta distortsioa, erritmo azkarra eta izerdia nagusi: *Holidays in Bardulia,* Gipuzkoako punk-oi!-aren jaialdi entzutetsuena, Arrasatera dator aurten.

**SEIGARRENA DAGOENEKO**
2003an ospatu zen lehenengoz Gipuzkoako punk-oi! taldeak biltzen dituen jaialdi berezia. Orduan Añorgako gaztelekuan egin zuten, eta, izan zuen arrakasta ikusita, hurrengo urtean ere antolatzea erabaki zuten; gaur arte. Aurtengoa, beraz, seigarren edizioa izango da.

**JAIALDIA, MUGIMENDUAREN ISLA**
Arrasateko gaztetxean joko duten 13 taldeak punk-oi! estiloaren barruan koka genitzake. Azken urteetan musika estilo horretako taldeen gorakada nabarmena izan da, eta *Holidays in Bardulia* jaialdia da horren isla.

Izan ere, hain esparru geografiko txikian antzeko estiloa jorratzen duten horrenbeste talde aurkitzea ez da batere erraza. Eta are zailagoa da taldeokin jaialdia antolatzea; eta gainera, talde batzuk kanpoan utzi beharra. Taldeen artean hasiberriak –The Convicts– eta agertokietan hamarkada luzea daramatenak daude –Enboskada–; belaunaldi berrien lekukoa bermatuta dago, horrenbestez.

**13 TALDE BI EGUNEAN**
Otsailaren 13an lau taldek joko dute (21:30): Plan B, Sospechosos, Aggressive Combat eta The Convicts. Zapatuan, berriz, dezibel uholdea 17:30ean hasiko da, bederatzi talde guztira: Neallta Fola, Friday's Crew, NPJ, Material Rechazado, The Last Strength, Doubling Boys, Deficencia Mental, Enboskada eta Vomito.

Sarreren prezioak sinbolikoak dira: hiru euro egubakoitzean eta bost zapatuan. Sarrerak: Donostiako Musika Autonoman, Beasaingo Eki Tattoo dendan, Azpeitiako Txarrantxa tabernan eta Arrasateko Dat tabernan.

**JAIAK** > MEATZERREKA AUZOA

# Mus txapelketa eta dantza izango dira protagonista San Baleixo jaietan

Aste bukaera honetan festa giroa izango da nagusi Meatzerrekan; adin eta gustu guztiendako ekintzak antolatu dituzte

**J.B.** > ARRASATE
Meatzerreka auzokoak jaietan izango dira aste bukaera honetan. Izan ere, San Baleixo jaiak ospatuko dituzte, eta, urtero moduan, mus txapelketa izango da protagonista nagusia, dantza emanaldiarekin batera.

**28. MUS TXAPELKETA**
Mus txapelketa zapatuan izango da, 17:00etan. Zortzi erregetara parte hartzeko bikote bakoitzak 25 euro ordaindu beharko ditu. Bikote irabazleari 200 euro eta garaikurra emango dizkiote.

## Jaietako egitaraua

**Urtarrilak 30, egubakoitza**
21:00 Auzo afaria, dantza saioarekin

**Urtarrilak 31, zapatua**
16:00 Umeentzako jolasak
17:00: 28. mus txapelketa
22:30: Kuluxka taldearen erromeria

**Otsailak 1, domeka**
11:00: Meza, San Baleixo ermitan
12:00: Txikitxu-Arrostaitz dantza taldearen emanaldia

**DIRULAGUNTZA** > AFRIKAREKIN ELKARTASUNA

# Udalak Boli Kostako gerrako iheslariei lagundu die

10.000 euroko dirulaguntza eman dio Serso gobernuz kanpoko erakundeari

**J.B.** > ARRASATE
Arrasateko Udalak 10. 000 euro eman ditu Boli Kostako gerrako iheslariak euren jaioterrira buelta daitezen, eta Arabako Foru Aldundiarekin eta Amurrioko Udalarekin batera eman du dirulaguntza. Boli Kostan dihardUen Serso izeneko gobernuz kanpoko erakundearen programa aurrera eramateko eman du dirulaguntza.

**1.000 EURO FAMILIA BAKOITZEKO**
Boli Kostako gerrako iheslariak euren etxeetara bueltatzen laguntzeko ekimena 2006an hasi zen. Ordutik hona, Sersori esker, 500 familiak jaioterrira itzultzeko aukera izan dute.

Lan horrek kostu ekonomikoa ere badu, eta ez da nolanahikoa. Luis Gutierrez Euskal Herriko Sersoko arduradunak dioenez, familia bakoitza itzultzea 1.000 euro kostatzen da.

**JAIAK** > ARATUSTEAK

# Mozorro afaria egongo da aurten Aratusteetan

Aratusteak indartzeko asmoarekin antolatu dute eta ezinbestekoa izango da mozorrotuta joatea

Udaletik dei egiten diete herritar guztiei mozorro afarian parte har dezaten



Iaz egindako desfilean irudiko *bakero* koadrila handiak hartu zuen parte. O.E.

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Udaleko Kultura Sailak prest du dagoeneko Aratusteetarako egitaraua. Otsailaren 20an hasi eta 22ra arte askotariko ekitaldiak egongo dira, eta baita berritasun bat ere: mozorro afaria, hain justu ere.

Aratusteak indartzeko asmoarekin antolatu dute afari hori, eta, Maider Osa Kultura teknikariak azaldu duen moduan, "ezinbestekoa izango da afarira mozorrotuta joatea". Afaria Aratuste-zapatuan izango da, Seminarioko zutabeen patioan, 21:30ean, eta Udaletik aurreratu dute berogailua egongo dela. Txartelak laster jarriko dituzte salgai, Pol-Pol, Kortazar, Ariznoa eta Udal Pilotalekuko tabernetan eta Jardun elkartean, 12 eurotan. Afalondoa DJ Angiek alaituko du.

Iaz egin zuten moduan, aurten ere mozorro desfilea egongo da zapatuan. 19:30ean izango da, herriko kaleetan barrena, Burrunbazale txarangaren laguntzarekin.

Bestalde, eta Aratusteak gehiago girotzeko asmoz, mozorrotzeko gonbita egiten die Udalak tabernari eta dendariei ere.

**KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETA**

Beste hainbat ekitaldi ere egongo dira Aratusteetan. Egubakoitzean, esaterako, Udal Musika Bandak eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak Aratuste-kontzertua egingo dute, 22:30ean, Udal Pilotalekuan. Aurtengorako aukeratu duten gaia da Kuba. Sarreren prezioa da bost euro eta aurrez erosi ahal izango dira Lazkano zapata dendan eta kultura etxean

Aratuste-zapatuan, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoek *Piratak* emanaldia egingo dute 16:00etan eta 18:30ean, Udal Pilotalekuan. Sarrerak pilotalekuko leihatilan egongo dira salgai, otsailaren 9tik hasita.

Aratuste-martitzenari dagokionez, umeendako disko festa eta karaokea izango dira San Martin plazan, eta baita zezensuzkoa ere.

**KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETA**

Inauterietako kartela aukeratzeko lehiaketa ere deitu dute. Bergaran bizi edo erroldatutako edonork har dezake parte. Kolorea eta teknika libreak izango dira, eta formatua, bertikala. Era berean, euskarri informatikoan ere aurkeztu beharko da diseinua. Kartelek ezinbestean eroango dute *Aratusteak 2009, Bergara* leloa. Irabazleak 350 eskuratuko ditu irabazleak.

Lanak aurkezteko mugaeguna da otsailaren 3ko 13:00ak, kultura etxean. Informazio gehiago, 943 77 91 58 zenbakian.

DATUA

**2**

**SAIO PIRRITX ETA PORROTXEK**

Pailazo ezagunek *Piratak* ikuskizunaren emanaldi bikoitza egingo dute Aratuste-zapatuan. Sarrerak otsailaren 9an hasiko dira saltzen, Udal Pilotalekuko leihatilan.

ESANAK

**"Aratusteak indartu nahi ditugu afariarekin, eta ezinbestekoa izango da mozorrotuta joatea"**

**Maider Osa** > Kultura teknikaria

**JARDUN ELKARTEA** > DANTZA IKASTAROA

# Euskal dantzen ikastaroetarako izenematea zabalik, Jardunen

Erromeriako dantzak eta fandango eta arin-arina ikasteko aukera egongo da otsailetik maiatzera bitartean



Urtarrilean hastapen eskolak eman ditu Juantxo Urbietak (irudian). JARDUN

**M.B.** > BERGARA

Jardunek antolatutako euskal dantzen ikastaroak aurrera jarraitzen du. Hain justu ere, martitzenetan, erromeriako dantzak ikasteko aukera egongo da otsailean hasi eta maiatzera bitartean. Eguenetan, berriz, fandango eta arin-arin eskolak emango dituzte –maila guztiak–. Biak ala biak 19:30ean izango dira, Ipintza institutuan, eta irakasleak izango dira Juantxo Urbieta eta haren taldea,

Horren harira, ikastarorako izenematea zabalik dago. Eta, hain zuzen, horretarako jo behar da Jardun elkarteak Errotalde jauregian (kultura etxea) duen bulegora edo 943 76 36 61 telefono zenbakira dei daiteke.

Prezioari dagokionez, ikastaro batek balio du 10 euro hilean eta bik, 15 euro hilean. Jarduneko bazkideek euro bat merkeago izango dute.

**MUSIKA** > LEHIAKETA

# Musika moderno lehiaketa deitu du Musika Eskolak

Lehenengoz antolatu dute eta musika eskoletako talde moderno ez profesionalei zuzenduta dago

**M.B.** > BERGARA

Musika Eskolak I. musika moderno lehiaketa deitu du 25. urteurrenaren barruan. Musika eskoletako talde modernoendako lehiaketa da eta taldeok ez dira profesionalak izang; gehienez, irakasle batek parte hartu ahal izango du.

Lehiaketa modalitate bakar batera mugatuta dago; musika modernoa (popa, rocka, bluesa, soula...) eta aurkeztutako abestiak –bi abesti aurkeztu beharko dira– propioak edo beste autore batzuenak izan daitezke. Bestetik, antolatzaileak jarriko ditu pianoa, anplifikadoreak, bateria eta ahots ekipoa. Gainerako tresnak talde bakoitzak eroan beharko ditu.

**IZENEMATEA ZABALIK DAGO**

Izena emateko epea zabalik dago martxoaren 16ra arte. Horretarako, izenemate orriarekin batera bidali beharko dira matrikularen 40 euroak ordaindu direla egiaztatzeko agiria – 2101 0070 83 0003023405–.

Parte-hartzaile kopurua mugatua izango da –gehienez, 10 talde– eta apirilaren 26an egingo dute. Emanaldiak Zabalotegi aretoan izango dira.

Sariei dagokienez, irabazleak 400 euro eramango ditu eta publikoaren saria jasotzen duenak, 200 euro.

Informazio gehiagorako idatzi *idazkaritza@bme.e.telefonica.net* helbidera edo deitu 943 76 57 80 telefono zenbakira.

**AUZOAK** > UR-SAREA

# Mekolaldera sareko ura eroateko lanak aste honetan hasiko dira

Lehenengo fasean, auzoko beheko aldeko etxeetara eramango dute ura: bost etxetara, hain justu

Lanok errepide nagusian eragingo dute eta semaforo bidez erregulatuta egongo da bidea



Mekolalde jatetxea dagoen eraikina da sareko ura izango duen etxeetako bat. JASONE ZABALA

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Mekolalde auzora sareko ura eroango du Udalak. Hain justu, datozen egunotan hastekoak dira. Auzoko etxe guztietara eraman nahi du ura Udalak, baina hastear diren lehenengo fase honetan auzoaren beheko aldeko etxeetara eroango dute: Mekolalde jatetxea dagoen eraikinera, Pariseneara eta Leizarri Behekoa, Leizarri Goikoa eta Leizarri Aurtengoa baserrietara. Bigarren fasean beste hamar bat etxebizitzatara eramango dute ura.

Datozen egunetan hasiko diren lehenengo faseko lanon aurrekontua da 173.000 euro ingurukoa eta enpresa eraikitzaileak 45 eguneko epea izango du lanok egiteko.

**ERREPIDEAN ERAGINA**

Errepide nagusiak auzoa bitan banatzen du; hortaz, lanok errepide horretan eragingo dutela ohartarazi dute Udaletik. Hori horrela, semaforo bidez erregulatuta egongo da bidea, seguruenik.

**AURTEN ERE TAXIA ANGIOZARREN**

2008an bezala, aurten ere taxi zerbitzua egongo da Angiozarren. Pegerto Blanco gidariak emango du zerbitzua –bederatzi lagunendako lekua du– eta astean behin izango da, egubakoitzetan, orain arte bezala.

Taxilaria 09:00etan abiatuko da Angiozartik kalerantz. Bidean zain egon daitezkeen auzotarrak ere hartuko ditu.

Angiozarrera itzulera izango da 11:45ean, azoka osteko taxi geltokitik. Bidaia bakoitzaren prezioa da euro bat.

**EUSKARA**

## Jendaurrean lan egiten dutenendako ikastaroa

Eguaztenean, hilaren 28an, bukatuko da izena emateko epea

**M.B.** > BERGARA

Jendaurreko zerbitzuetan –denda, jatetxe, taberna, ileapaindegi...– lanean dihardutenendako euskara ikastaro berezia antolatu dute Udalak eta Udal Euskaltegiak, HABErekin elkarlanean.

Eguaztenean, hilaren 28an, bukatuko da izena emateko epea eta taldea osatzeko, gutxienez, zortzi lagun beharko dira.

**IKASTAROAREN XEHETASUNAK**

60 orduko oinarrizko ikastaroa izango da eta helburua da bezeroen eskariak ulertu eta oinarrizko elkarrizketetan euskaraz erantzuteko gaitasuna lortzea. Erabiliko diren metodologia eta materiala, bereziki, zerbitzuetan lan egiten dutenendako diseinatuta daude.

Eskolak izango dira martitzen, eguazten eta eguenetan, bi orduz, otsailaren 10ean hasi eta apirilaren 30era arte.

Izena emateko jo Udal Euskaltegira edo deitu 943 76 44 53 zenbakira. Prezioa da 30 euro.

**argazki zaharra**



## Ozaetako emakume koadrila briska jokoan

Ohitura galtzen ari da, baina lehenago ohikoa izaten zen arratsaldean auzokoak batu eta karta jokoan egitea. Irudian, Ozaetako emakume koadrila ageri da eta briskan egiten zuten egunero, Maria Aiastuiren denda ostean zegoen eserlekuan. Argazkian daude, ezkerretik eskumara: Maria Azkoitia, Hortensia, Antoni Barrenetxea, Angela Aiastui, Placida Larrañaga, Manuela Azkoitia, Gertrudis Zabaleta, Maria Aiastui eta Asun Aroztegi. Umeak dira: Pedro Mari Martin, Javier Moñux eta Gonzalo Arrondo.

**Argazkia:** Jesusa Zubia. **Testua:** 'Goienkaria' **Urtea:** 1954.

**oharrak**

ZOZKETA

**> Bedelkarreko zenbaki bakarra falta da saria jasotzeko**

1000 euroko saria jaso du Arantza Gallastegik (4.611), 500 euroko bi sariak Agurtzane Azkaratek (9.904) eta M. Isabel Urkiak (68.662). 250 euroko lau sarietako bat ematea falta da oraindik (36.353); gainontzeko hirurak jaso dituzte: M. Sol Perezek (46.487), Eider Larrañagak (71.2369) eta M. Jose Curadok (88.357).

HAUTESKUNDEAK

**> Postaz bozkatzeko aukera dago Alderdi Sozialistaren bulegoan**

Bidekurutzeta 23an duten bulegoa egunero egongo da zabalik, 11:00-12:30 eta 16:00-20:00 ordutegian.

HAUTESKUNDEAK

**> Postaz bozkatzeko bulegoa jarri du EAJ alderdiak**

Batzokiko obrak direla-eta bulegoa Bidekuretzeta kalean, Carmen Garate poltsa denda zegoen tokian egokitu dute. Ordutegia izango da: 11:00-13:00 eta 18:30-20:30. Informazio gehiago 943 76 47 00 zenbakian. Eskaerak egiteko azken eguna otsailaren 19a da.

UDALAREN EGUTEGIAK

**> Udalaren egutegiak eskuratzeko aukera dago**

Herri osoan banatu diren arren, norbaitek ale gehiago nahi izanez gero Udaltzaingoan eskura ditzake.

ZOZKETA

**> Mariaren Lagundiko zozketako zenbakia atera da**

Ikas bidaiarako zozketako zenbaki sariduna da 1.815. Irabazleak jasoko du Zumelagan bazkaria bi lagunendako.

KINTO AFARIA

**> 1956an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**

Urtarrilaren 31n egingo dute, Zabala jatetxean. Izenematea da Zabala jatetxean (943 76 42 57), hilaren 26a baino lehen. Afari egunean hitzordua egin dute 19:30erako Udal Pilotalekuan. Afaria izango da 21:30ean, eta dantzaldia ere egongo da.

**INFORMATIKA** > IZENEMATEA ZABALIK

# Barikuan bukatzen da informatika ikastaroetako izenemate epea

Interesatuek Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Merkataritza batzordean, Ikas Hiru akademian edo 943 78 31 telefonoan eman dezakete izena



Goian, iaz Ikas Hiru akademian egindako ikastaro bateko irudia. GOIENKARIA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Merkataritza batzordeak antolatutako informatika ikastaroetan izena emateko epea egubakoitzean bukatuko da. Izena eman gura dutenek Ikas Hiru akademiara jo dezakete, edo 943 78 31 03 telefonora dei dezakete. Eskola egunak eta orduak ikasleen eta Ikas Hiru akademiako irakasleen artean adostuko dituzte.

Urtarril, otsail eta martxo artean zazpi ikastaro egingo dituzte (ikus ondoko taula). Horietako batzuk oinarrizko ikastaroak dira; besteak beste, ofimatika eta photoshop ikastaroak; eta beste batzuk, sakontze ikastaroak. Adibidez, ofimatika ikastaroa. Gainera, eroskketak Internet bidez nola egin daitezkeen eta norbere gauzak grabatzen erakutsiko dute; eta argazkiak bideora pasatzen ikasteko ikastaroak egingo dituzte.

## Ikastaroen iraupena eta prezioa

| IKASTAROA | ORDUAK | PREZIOA |
|---|---|---|
| Ofimatika oinarrizko ikastaroa | 30 | 50 € |
| Ofimatika sakontze ikastaroa | 30 | 50 € |
| Photoshop oinarrizko ikastaroa | 30 | 60 € |
| Linux eta openoffice oinarrizko ikastaroa | 40 | 70€ |
| Zure gauzak nola grabatu? | 4 | 8 € |
| Erosketak Internet bidez | 6 | 12 € |
| Ikasi zure argazkiak bideora pasatzen | 8 | 18 € |

**IKASTARO GEHIAGO AURRERAGO**

Martxotik aurrera beste hainbat ikastaro egin gura dituzte. Mekanografiaren, autocaden, blogen eta biruskontrakoen gaineko ikastaroak egingo dituzte, besteak beste.

Bestalde, ordenagailuaren mantenuaren eta konponketaren gainean 30 orduko ikastaroa egiteko asmoa dute. Era berean, etxeko sarea sortu eta nola konfiguratzen den erakutsiko dute.



MIREIA BIKUÑA

## Ibarra zulatzen hasi dira, ETEO berriko eraikina egin ahal izateko

ETEO berriko eraikina egin ahal izateko Ibarra zulatzen hasi dira dagoeneko. Argazkian ikusten den moduan, oraingoz futbol zelaiaren erdian zuloa egin dute. ETEOko arduradunen asmoa campus berria 2010-11 ikasturterako bukatzea da.

Enpresa Zientzien Fakultate berriak 7.000 metro koadroko azalera erabilgarria izango du. Besteak beste, auditoriuma, 27 ikasgela, laborategia, informatika gela, liburutegia eta kafetegia izango ditu.

**TXAPELKETA**

## Ehiza txapelketako izenematea zabalik

**M.B.** > OÑATI

Pago Uso elkarteak eta Alzu ehiza eta arrantza dendak ehiza txapelketa egingo dute otsailaren 7an, Zanbranan, 09:00etatik 13:00etara. Txapelketan parte hartu gura dutenek asteon eman beharko dute izena, gaurtik eguenera arte Pago Uso elkartean edo Alzu dendan. Ehizako federatu direnek 35 euro ordaindu beharko dute eta ez direnek, 40 euro.

**BALDINTZAK**

Txapelketan parte hartu gura dutenek dokumentazioa egunean izan beharko dute; eta, derrigor, txaleko distiratsua erabili beharko dute. Gainera, txakur bakar batekin egingo dute ehizan.

## oharrak

KORRIKA

**> Korrika antolatzeko bilera egingo dute gaur**

Apirilaren 5ean Oñatira helduko den Korrika 16ak herrian egingo dituen kilometroak antolatzeko bilera egingo dute gaur, 18:30ean kultura etxean. Bilera irekia da herritar guztiendako.

HITZALDIA

**> Deustuko Unibertsitateko ikasketen gaineko hitzaldia**

Deustuko Unibertsitateko ikasketen eskaintzaren gainean egingo dute berba martitzenean, 18:30ean, Txantxiku ikastolako areto nagusian. Hitzaldia, bereziki, Batxilergoko lehen eta bigarren mailetako ikasleendako eta euren gurasoendako da.

ZINEMA

**> 'The dead girl' zineklubean**

Karen Moncrieff-ek zuzendutako *The dead girl* pelikula eskainiko dute zineklub taldekoek, eguenean, 20:00etan. Toni Collete, Piper Laurie eta Don Smith dira protagonistak.

HITZALDIAK

**> Elkar Hezik bi hitzaldi egingo ditu bihar eta etzi**

Bihar, gurasoek nerabeekin duten komunikazioaz egingo dute berba, Bigarren Hezkuntzako E gelan, 18:30ean.

Bestalde, *No sabemos euskera. ¿Cómo ayudar a nuestro hijos e hijas para que sean bilingües?* delako hitzaldia egingo dute. Hain zuzen ere, eguaztenean egingo dute, kultura etxeko zinema aretoan, 19:00etan.

ERAKUSKETA

**> Corrado Massaciren txotxongilo erakusketa**

*Txotxongiloen mundu bat* delako erakusketa ikusgai dago kultura etxean, otsailaren 15era arte. Hain zuzen ere, astelehenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

HAUTESKUNDEAK

**> Posta bidez botoa emateko aukera EAJren Oñatiko bulegoan**

Martxoaren 1eko hauteskundeetarako botoa posta bidez eman gura dutenendako, EAJk egunero zabalduko du bulegoa tramiteak egiteko, 19:30etik 21:00etara. Era berean, 943 78 01 17 telefonora dei daiteke.

MATRIKULAZIOA

**> Txiki Txokon zabalik dute izenemate epea**

Txiki Txoko haurtzaindegian izena emateko epea zabalik dute egubakoitzera arte. Interesatuek 10:00etatik 11:30era joan daitezke eskolara izena emateko. Jaiotako haurrak bakarrik matrikula daitezke, eta eskolan hasiko dira 16 hilabete bete ondoren.

ZERBITZUAK

**> Suradesak zerbitzua ematen du martitzenetan**

Suradesako teknikaria 09:45etik 13:00etara arte egoten da udaletxeko bigarren solairuan. Etxeak eraberritzeko laguntzetarako tramiteak egiten dituzte.

**ARETXABALETA** > ESKOLA AGENDA XXI

# Kontsumoaren gaineko konpromisoak denondako

Batzarra egin dute udal ordezkariek eta Kurtzebarrikoek, Eskola XXI dela eta

2007-2008 ikasturtean kontsumoa landu zuten eta hainbat konpromiso hartu dituzte


Kurtzebarriko Lehen Hezkuntzako eta DBHko 20 ikasle inguru izan ziren eguenean udaletxean. MIRARI ALTUBE

**M. ALTUBE - M. BITERI** > ARETXABALETA
Kurtzebarri eskolako Lehen Hezkuntzako eta DBHko 20 ikasle inguru elkartu ziren eguenean Inaxio Garro alkatearekin, Joxe Anjel Antxia Ingurumen zinegotziarekin eta Ingurumen eta Hirigintza teknikariekin. Udaletxean egin zuten bilkura.

Joan den urtean, 2007-2008 ikasturtean, kontsumoa landu zuten eskolan eta Udalak hartutako konpromisoak betetzeko eskaerak egin zizkieten eguenean udal ordezkariei.

**UDALAREN KONPROMISOAK**
Ikasleek gogorarazi zutenez, banatzen den propaganda hartu gura ez duten atarteek pegatinak jar ditzakete ezezkoa emanaz. Pegatinak udaletxean dituztela eskuragai, baina ez dela behar besteko argibiderik ematen aipatu zuten. Horren aurrean, alkateak *Arratabe* udal aldizkarian horren berri emateko konpromisoa hartu zuen.

Gainera, zaborrarendako lurpeko edukiontziak jartzea proposatu zuten. Gaur egun herriko leku bakarrean badaude ere, aurrerantzean beste bi lekutan jartzeko asmoa dutela erantzun zien Garrok. Erabilitako olioa hamabostean behin jasotzea ez dela nahikoa eta horretarako edukiontzia jartzearen beharra azpimarratu zuten. Horren harira, laster edukiontzia jarriko dutela jakinarazi zien Joxe Anjel Antxiak. Ze edukiontzi mota jarri aztertzen dihardute. Horretaz aparte, esaterako, herriko argiak askotan egunez piztuta egoten direla eta zakarrontzi eta iturri asko apurtuta daudela kritikatu zuten.

**IKASLEEN NEURRIAK**
Bestalde, ikasleek ere honako konpromisoak hartu zituzten, kontsumoari dagokionez: hondakinak zakarrontzira botatzen saiatu, argiak eta ordenagailuak itzali, zaborra sailkatu eta dagokion edukiontzira bota eta plastikozko poltsak birziklatu.

Kontsumoa landu ostean, 2008-2009 ikasturtean publizitatea jorratzea adostu dute Kurtzebarri ikasleek, eta horretan hasi dira dagoeneko. Lehenengo, herriko diagnostikoa egingo dute, eta horretarako kalera aterako dira.

JAURLARITZAREN BISITA

### Kurtzebarriko toki arazoari irtenbidea emateko, Hezkuntzako ordezkarien bisita

Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkarien bisita izan zuten eguenean Kurtzebarrin. Bisita EAko zinegotzi Lore Martinezen eta Hezkuntzako Gipuzkoako ordezkari Arantza Lakaren arteko bilkura baten ondotik dator; batzar hartan, eskolaren egoeraren gainean berba egin zuten; zehazki, leku faltaren eta hartu beharreko neurrien gainean. Datorren ikasturterako lau gela behar dira eta Hezkuntzako ordezkariak prest azaldu ziren aukeratzen den tokian egin beharreko egokitze lanen zati bat ordaintzeko. Epe ertainera, Kurtzebarrik eskatutako bost gela eta psikomotrizitate gelari dagokionez, horri irtenbidea bilatu arte aurre-fabrikatuak erabil daitezkeela diote Hezkuntzatik. Eguenean egoera zuzenean ezagutu zuten.

**ESKORIATZA** > AHT

# Azkorartzatieta errekaren desbideraketa dela-eta erreklamazioak aurkez daitezke

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA
Abiadura Handiko Trena eraikitzeko lanekin aurrera dihardute Eskoriatzako udalerrian. 2008ko abenduaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Legutio-Eskoriatza (II. azpitartea) tartean Azkorartzatieta errekan lanak egiteko baimen espedientea argitaratu zen.

Argitaratutako iragarki hori Eskoriatzako udaletxeko iragarki-oholean jarrita dago jendaurrean urtarrilaren 12az geroztik, obra horiek kalteak eragiten dizkietela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten epe barruan.

**LANAK**
Lan horiek Azkorartzatieta ubidearen desbideraketa, estaldura eta ezker ertzean betelana eta ubidearen gainean biaduktuaren eraiketa aurreikusten dute. Horiek egin ahal izateko baimena eskatu dute. Hona hemen zehazki egin beharrekoa: Azkorartzatieta errekaren desbideraketa 460 metro inguruko zati batean haren ezker ertzean betelanak egiteko, trenaren azpitik 42 metro luzeran errekaren estaldura, 15 metroko beste estaldura sarbidearen azpitik eta, azkenik, gainetik biaduktuaren eraikuntza.

**OTSAILAREN 1ERA ARTE**
Eskoriatzar guztiek hori jakin dezaten eman da argitara. Udaletxeko iragarki-oholean jarri, eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita hogei egun natural eta jarraitutako epean erreklamazioak aurkez daitezke. Hori kontuan hartuta, otsailaren 1era arte aurkeztu ahal izango dira erreklamazioak.

Espedientea gura duenak, gainera, ikusgai du Eskoriatzako udaletxean edo Uraren Euskal Agentzia-Ekialdeko Kantauriar Arroen bulegoan. Azken hori Donostian dago, Infanta Cristina hiribideko 11. zenbakian.

> ARETXABALETA

### Sexu tailerra izango da urtarrilaren 29an Atxagazten

Aretxabaletako gaztelekuak ikastaroak eta tailerrak antolatu ditu datozen hilabeetarako. Eguenean, hilak 29, sexu tailerra egingo dute, 18:30ean. 12 eta 14 urte bitarteko gazteendako bideratuko da saio hori.

Mirari Arando sexologo eta Arrasateko Sexologia Zerbitzuko arduraduna arduratuko da gai horren gainean azalpenak emateaz eta gazteek eduki ditzaten zalantzei erantzuteaz.

> ARETXABALETA

### Eguenean 'Lejos de ella' izeneko filma botako dute Arkupen

Astero bezala, zinemazaleek hitzordua dute eguenean Arkupen. Oraingoan, Sarah Polleyk zuzendutako *Lejos de ella* izeneko filma botako dute, 19:30ean. Julie Christie, Olympia Dukakis, Gordon Pinsent eta Michael Murphy aktoreek parte hartu dute, besteak beste. 13 urtetik gorakoendako filmak 110 minutu irauten du. Betiko moduan, sarrerak lau euro balio du.

> DEIALDIA BI HERRITAN

### Gazteendako eski irteera antolatu dute zapaturako

Eskoriatzako gaztelekutik eta Aretxabaletako Atxagaztetik eskiatzera irteera antolatu dute zapaturako, urtarrilak 31. Valdezcaraiko eski estaziora joango dira gazteak egun pasa.

Arrasatetik pasa ostean, autobusa 06:45ean iritsiko da Aretxabaletara eta hango gazteak hartuko ditu. Ordu laurden geroago, 07:00etan, gauza bera egingo du eskoriatzarrekin. Autobusa 17:00etan irtengo da eski pistetatik.

> ESKORIATZA

### Industrialdearen Administrazio Kontseilua aldatu da

Eskoriatzako Industrialdearen ezohiko batzar orokorra egin zuten udaletxeko osoko bilkuren aretoan, joan den astelehenean, urtarrilak 19. Hain zuzen, Administrazio Kontseiluko kontseilari izateari utzi zioten Aitor Urrutiak eta Juan Luis Merinok.

Haien ordez Edorta Barandiaran eta Iñaki Pierrugues izendatu zituzten Eskoriatzako Industrialdearen Administrazio Kontseiluko kontseilari.



Kiroldegian gurasoak eta umeak jolasten ibili ostean, guztiek afari-merienda egin zuten eskolako jangelan. ROSA MONDRAGON

**ARAMAIO** > AISIALDIA

# Guraso eta ikasle ugari, Elkarbizitzaren Jaian

San Martin eskolako gurasoek antolatuta, jai erraldoia egin zuten kiroldegian eta eskolan

**IKER BARANDIARAN** > ARAMAIO
Herenegun, zapatua, jai erraldoia egin zuten Aramaioko ume, gazte, guraso eta irakasle talde handi batek Elkarbizitzaren Jaia izenpean. Hala, kiroldegian batu eta ikasle zein gurasoak jolasten ibili ziren arratsalde euritsu osoan umore handiarekin.

Elkarbizitzaren plana iaz abiarazi zuten. San Martin eskolako guraso, irakasle eta ikasleen planaren helburua da gaztetxoenei elkar errespetatzeko baloreak erakustea; hala nola, lagunekin, irakasleekin eta gurasoekin ahalik eta harreman egokienak izateko bidea ematea eta erakustea.

**GUZTIAK JOLASTEN**
Aurten gurasoek hartu dute iniziatiba, eta eurek hartu dute jai erraldoia antolatzeko ardura. Hala ere, hainbat irakaslek esku hartu zuten jaian. 17:00etan egin zuten hitzordua eta jarraian heldu, gaztetxo eta umeak batera aritu ziren jolasten altxorraren bila, soka saltoan, aulki jokoan eta beste. Horrez gain, aurpegiak margotzeko tailerra egin zuten, eta izara handi baten elkarbizitzarekin lotutako esaldi eta marrazkiak egin zituzten. Izara hori San Martin eskolan zintzilikatuko dute.

**JANGELARA, KALEJIRAN**
Jolasak bukatu ahala, batutakoek kalejira egin zuten San Martin eskolako jangelara, trikiti eta panderoak lagunduta. Herritarrek harriduraz eta pozik hartu zuten inprobisatutako kalejira. Eta behin jangelan, luntxa egin zuten gurasoek aldez aurretik etxean prestatutako janariekin.

Elkarbizitzako Gurasoen Foroko kideek jaiaren oso balorazio ona egin zuten, eta aurreratu zuten udaberrian mendi irteera egingo dutela.≤

**ELGETA** > ERREPIDEAK

## Arrotako bihurgunearen egoera aztertzeko zundaketak egin ditu Foru Aldundiak

Zulaketak egin dituzte eremu guztian, eta behaketa lanak egiteko hodi bat sartu dute lur azpian, arazoa zein den antzemateko

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA
Arrotako bihurguneak beti eman ditu arazoak. Gehiago edo gutxiago, baina behin baino gehiagotan mugitu da lur zoroa eremu horretan. Ezegonkortasun hori zerk eragiten duen antzemateko azterketa lanak abiarazi dituzte.

**ZUNDAKETA GEOTEKNIKOAK**
Gipuzkoako Foru Aldundiak bidalitako teknikoak Arrotako bihurgunearen bueltan ibili dira aurreko astean. "Zundaketa geoteknikoak egin ditugu", adierazi du lantaldeko buruak. "Ezegonkortasuna ikusten den eremuan zulaketa bat baino gehiago egin ditugu lurraren konposizioa aztertzeko. Behaketa lanak egiten lagunduko digun hodi bat ere sartu dugu lur azpian. Lurra noiz, nola eta zenbat mugitzen den aztertzen lagunduko digu".

Behaketa lan horiek egiten ari dira orain. Egun batzuk itxaron beharko dituzte orain beharrezkoak diren datuak jasotzeko.

**URAREN PASABIDE NATURALA**
Aldundiko teknikoak argitu du goizegi dela oraindik diagnosi teknikoak aurreratzeko, baina bere susmoen berri eman du. "Gora begiratu eta sakana ikusten dugu. Inguruaren ezaugarriak kontuan hartuta baliteke uraren pasabide naturala izatea. Arrotako bihurgunean pilatzen dira goitik datozen ur guztiak".

Ur pilaketa hori izan daiteke lur zoroaren behera etortzearen arrazoia. Litekeena da errepideko asfaltoa horregatik behin eta berriz mugitzea. Emaitza teknikoak ezagutzeko, baina, egun batzuk itxaron beharko ditugu oraindik.

**LEINTZ GATZAGA** > LANAK

## Abadetxearen aurreko aldea berrituko du Elizak

Jausten hasi aurretik, alboetako paretak eta aurreko aldea berritzea erabaki dute; behin berrituta, errentan eman gurako lukete

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA
Orain dela urte batzuk teilatua konpondu zioten abadetxeari eta orain paretak eta aurreko aldea berrituko dizkiote. Joan den astean hasi ziren aldamioak jartzen, eta poliki-poliki hasiko dituzte lanok.

San Millan parrokia alboan dagoen abadetxeko azken errentariak orain dela 14 urte joan ziren. Ordutik hona mantentzelan gutxi egin dizkiote eta nahiko egoera eskasean dago: hainbat lekutan pitzadura handiak ditu, aurreko aldean duen arkuan, esaterako, eta leihoak apurtuta dauzka. Horiek guztiak konpondu egingo dituzte eraikinaren egoerak okerrera egin aurretik, eta itxura berria hartuko du etxeak laster. Barruko aldea, ostera, ez dutela ukituko jakinarazi digute lanen arduradunek.

**ERRENTAN EMATEKO**
Elizako arduradunen asmoa da errentan ematea, lehen legez. Eraikin handia da –solairu baten etxebizitza eta gainean ganbara–, baina barrutik ere konponketa batzuk egin beharko dizkio bizi izatera doanak.



San Millan parrokia alboan dagoen abadetxea. MIRARI ALTUBE

**ANTZUOLA** > HIRIGINTZA

## Udaberrian hasiko dituzte Kalegoi berritzeko lanak

Kalebarrenen eta Buztinzurin dagoen modukoa izango da zoladura Kalegoin

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA
Kalegoiko urbanizazio lanekin amaituko dituzte herriko alde zaharra berritzeko lanak. Udaberrian, apirilean, hastekoak dira lanok, eta, Udaletik esan digutenez, lau hilabete beharko dituzte haiek amaitzeko.

Hala ere, zaila izango da lanak uda aurretik amaituta izatea; hortaz, baliteke obrak bi zatitan egitea. Berrikuntza lanak egiteko dirulaguntza Espainiako Estatuko fondotik jasoko dutenez, lanak urtea amaitu aurretik bukatzea ezinbestekoa da.

Kalegoi kaleko zoladura Herriko Plazan, Kalebarrenen eta Buztinzurin dagoen modukoa ipiniko dute. Hala ere, egongo da aldaketarik; izan ere, beste kale horietan arazo txiki batzuk egon dira zoladurari dagokionez, eta horiei irtenbidea ematea da asmoa; baita losetak apur ez daitezen neurri teknikoak hartzea eta estolderia estalkiek zaratarik atera ez dezaten egokitzea ere.

**ZIRKULAZIOAN ALDAKETAK**
Etorkizunean Kalegoi norabide bakarrekoa izatea da asmoa, eta Sagastiko bidea luzatzeko aukera ere planteatu dute. Hortaz, lanek iraun bitartean asmoa da bide hori, behin-behinean bada ere, abian ipintzea. Horrela ezin bada, Antigua auzoko irteerarekin eta Sagastiko sarrerarekin moldatuko direla uste du alkateak.



> FUTBOLA
Aloña preferenteko liderra da atzo Mundarrori 4-0 irabazita > 23



> ZIKLISMOA
Markel Irizar mendiko sariko maillotarekin itzuliko da Australiatik > 26

> ELKARRIZKETA
Fortunak 'Heuk proba ezan' ekimena jarri du abian, emakumezkoak korrika egitera animatzeko asmoaz; eta, Oihana Kortazar Elgetarra da Bergarako entrenatzailea > 28



**BOXEOA** > SANTI GALAN

# "Berriro igoko nintzateke ring batera, har hori dut barruan"

**BOXEO ESKOLAK**
Espainiako txapeldun izandakoak boxeoa irakasten die 30 laguni Arrasaten

**SASOIKO**
Galanek dio gaztetan baino hobeto dagoela, eta gustura egingo lukeela borrokaren bat



**ENTRENATZEN** Santi Galan eta boxeoko ikasleak astean hirutan elkartzen dira entrenamendu saioa egiteko. JOSETXO ARANTZABAL

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE
Egubakoitz arratsaldea da, eta Arrasateko Beti Onako gimnasioan 10 lagun jo eta su dabiltza, boxeoko ariketak egiten: "Egubakoitzetan askok kale egiten dute, besteak beste eskiatzera joaten direlako", adierazi du Santi Galanek (Arrasate, 1965). Astelehen eta eguaztenetan ere entrenatzen dute, eta 25-30 lagun animatzen dira boxeoaren bitartez sasoi puntuari eusten: "Ez dira borrokan egin gura dutelako etortzen, jendeak ez du boxeorik egin gura. Hona etortzen direnen asmoa da kirola egitea eta indartsu egotea. Hala, egia da batzuk probatu ostean utzi egiten dutela, sufritzerik gura izaten ez dutelako. Izan ere, boxeoko ariketak egiten apur bat sufritu egin behar da".

Galanek klaseak ematearekin batera ikasleekin izerdia botatzeko ere aprobetxatzen du: "Esango nuke gaztetan baino hobeto nagoela orain, indartsuago. Izan ere, lehen bakarrik entrenatzen nuen, Musakolako kantxako harmailen azpian izaten nuen nire txokoa, eta orain lagun koadrila polita elkartzen gara".

**FAMILIA KIROLZALEA**
Santi Galan ring batera igo aurretik Amalio anaia boxeoan zebilen: "Ni Jesusekin, anaiarekin, karatean hasi nintzen –guztira zazpi anai dira, denak kirolzaleak– eta behin anaiaren boxeoko zaku bati kolpeka hasi nintzen eta anaia konturatu zen eskuin kolpe ona nuela; horrela hasi nintzen".

Boxeoak oihartzun handia izan zuen 80ko eta 90eko hamarkadetan eta Arrasaten ere hainbat jaialdi antolatu zituzten: "Etxean bizpahiru aldiz egin nuen borroka; oso berezia izaten zen. Amateurretan 70 borroka baino gehiago egin nituen, eta 21 urterekin Espainiako txapeldun izan nintzen. Horrekin batera, selekzioarekin ere askotan joan nintzen Europara, nazioarteko txapelketetara; oso interesgarria zen, hego-amerikarren, errusiarren... maila oso oneko boxeolarien kontra lehiatzen nintzelako".

**PROFESIONALETARA SALTO**
Baina, inguruan Galanekin borroka egin gura zuen amateur mailako boxeolaririk ez, eta profesionaletara egin zuen salto (14 borrokaldi, 11 garaipen): "Jaialdi garrantzitsuena Oviedon egin nuen, gaur egun Espainiako boxeoko selekzioko arduradun den Manel Berdoncesen kontra, hain zuzen ere. Harmailetan Mickey Rourke aktorea eta Samantha Fox zeuden borroka ikusten, pentsa... Berdonces Espainiako txapelduna zen, eta neure kontra defendatu behar zuen titulu hori. Hala, bosgarren roundean Berdoncesek gibelean eman zidan ukabilkada ederra, eta lurrera joan eta gero altxatzeko gauza izan nintzen arren, hor amaitu zen nire borroka".



Ikasleak sabela indartzeko ariketak egiten, Galanen begiradapean. J. ARANTZABAL

Urte asko igaro dira ordutik, eta boxeoko eskolak ematen Galanek barruan duen harra baretzen badu ere: "Bai, gustura igoko nintzateke berriro ere ring batera, eta borrokan maila ona emango nukeela uste dut. Baina, zoritxarrez, hemen ez dago boxeoarekiko interesik; hala daude gauzak".

KIBUC GURE AMETSA
ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK
WWW.KIBUC.COM
NIRE ETXEA ♥ DUT

AZPEITIAN GAUDE, ALTZARIAREN SORLEKUAN, ETA ARLO HONETAN 30 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA DUGU.
4.000 METRO KOADROTIK GORAKO GUZTIZ ERABERRITUTAKO ERAKUSKETA DUGU.
ESKATU ORDUA ETA GURE DEKORATZAILE PROFESIONALEN AHOLKULARITZA.
ESKATU PARKING ZERBITZU PRIBATUA.




KIBUC
altzari eta osagarriak
Azkenean gure etxean

gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel.: 943 15 16 81

KIBUC Gure Ametsa
altzari eta osagarriak
www.kibuc.com

**PREFERENTEA** > ALOÑA-MUNDARRO

# Idigorasek hirugarren gol aukeran ez zuen barkatu

Oñatiko aurrelariak 'hat-trick'-a egin zuen atzo, eta beste hiru gol sartzeko aukera ere izan zuen

Partidu ia guztiak bertan behera geratu diren asteburuan Aloñak lider amaitu du jardunaldia



Mikel Palacios Mundarroko kontrarioa baino lehenago baloira iristeko ahaleginean, Ugarte begira duela. JOSETXO ARANTZABAL

**ALOÑA MENDI**
**4-0**
**MUNDARRO**

**ALOÑA** > Iñigo, Elgarresta (Zubia, 67. min), Igartua, Roberto Idigoras (Iñigo Arregi, 62.min), Palacios, Unai Arregi (Alberdi, 70. min), Asier Ugarte (Garmendia, 63.min), Xabier Agirre, Aitor Lopez, Mikel Sanchez , eta Ioritz (Julen, 70. min).

**MUNDARRO** > Alex, Asier, Ekaitz, Alain, Arkaitz, Mikel, Gorka (Agustin, 54.min), Olabide, Yanguas, Karlos (Andoni, 54. min).

**Epailea** > Perez jaunak Aloñaren laugarren golean ez zuen asmatu, jokoz kanpo zen.

**XABIER URTZELAI** > OÑATI

Ezohiko jardunaldian, Aloñak ez du lehenengo postura salto egiteko aukera alperrik galdu. Kontrario zuzenak diren Aretxabaletak eta Hondarribiak ezin izan zuten zapatuan jokatu, denboralea tarteko partiduak bertan behera utzi zituztelako.

**MUNDARRO HAMAR MINUTUZ**

Kanpoko taldea hamabost minututuz izan zen atzo Azkoagainen, hasierako hamabost minutuetan. Astigarragakoek orduan estutu zuten apur bat, baina ez ziren Oñatiko defentsak egindako opariren bat edo beste aprobetxatzeko gauza izan –itxura oso makala erakutsi zuen Mundarrok, bai aurrean eta baita atzean ere.

Aloñari dagokionez, hasierako nagitasunak gainetik uxatutakoan hasi ziren erakusten Azkoagainen aspaldian nork agintzen duen. Bazirudien Idigorasek aurrean arratsalde iluna izan behar zuela, bi gol aukera garbi izanda ere ez zuelako asmatzerik izan. Baina dabilenak saria jasotzen du gehienetan, eta Idigorasek hirugarrenean ez zuen barkatu: eskuin hegalean baloia jaso, jokaldia egin eta jaurtiketa ederra barrura (1-0).



Elgarrestak zaleen txaloak jaso zituen, Zubiak aldatzea erabaki zuenean. J.A.

Mundarro bezalako taldeen kontra hori izaten da zailena, lehengoa egitea; behin hori eginda gauzak asko errazten dira. Bigarren gola lehenengo zatiaren amaieran egin zuen Oñatiko aurrelariak: atezainak ateko sakea txarto atera, eta defentsak komeni baino abantaila handiagoa eman zion Idigorasi (2-0).

**EKAITZA ATSEDENALDIAN**

Bigarren gol horrek min handia egin zion Mundarrori, eta atsedenaldian bota zuen zaparradarekin hoztu barik, Aloñak ondo jarraitu zuen bigarrenean ere. Idigorasena izan zen hirugarren gola (55. minutuan), baina lehenago Ugartek ondo estutu zuen atezaina –baloia langara. Hurrengoa ez zen abisua izan, gola lortu zuen Ugartek (4-0), baina jokoz kanpoko jokaldi garbian –hiru metro bai. Jokalariei kosta egin zitzaien Ugarte zoriontzera joatea, epaileak jokaldia balio gabe utziko zuela pentsatuta. Aloñak ez zuen oparien beharrik, Zubiaren taldeak Mundarro goitik behera menderatu zuelako.

**PREFERENTEA** > MONDRA-TOLOSA

# Markagailuan aurrea hartuta ere, ezin etxean irabazi

Lehenengo zatian joko ona baino golak izan ziren, 2-2 erretiratu ziren-eta aldagelara

Bigarren zatian indartsu dabilen Tolosak gola egin eta ondo jakin zuen alde hori defendatzen




Bigarren gola egin zuen Heriz, Keixiri pasea emateko gertu, 0-Oekoarekin. I.A.

**MONDRA**
**2-3**
**TOLOSA**

**X.U** > ARRASATE

Atzo Tolosak ez zuen Mondrak baino gehiago egin –norgehiagoka zapatuan jokatu behar zuten, baina denboraleagatik 24 orduz atzeratu zuten partidua–, eta askotan hor egoten da ondo dabiltzan taldeek izaten duten abantaila, gehiago egin barik aldeko emaitzak lortzen dituztela.

Lehenengo zatian Mondra aurreratu zen, Muruak egindako golari esker (25.min), baina Tolosak minutu bakarra behar izan zuen erantzuteko, Azpirozen bitartez (1-1). Behin atera asmatuta jokalari horrek gola egiteari gustua hartu eta 10 minutu geroago Tolosaren bigarrena egin zuen Azpirozek (1-2). Lehen zatia amaitu aurretik, baina, ezker hegaletik egindako jokaldi ederretik baloia jasota, Herizek binakoa egin zuen

Bigarren zatian bi taldeek hobeto jardun zuten, nahiz eta ate aurrean horren punteria ona ez izan. 78. minutuan Tolosako Blanco hirugarren gola egiteko gauza izan zen, eta Mondrak ezin izan zion horri erantzun.

**HURRENGOA ERE ETXEAN**

Arrasateko mutilek datorren astean irabazi beharreko partidua jokatuko dute, Mojategin. Azkargortaren mutilek sailkapenaren azkenaurreko postuan dagoen Anaitasunaren bisita izango dute.

**DENBORALEA**

## Zapatuko partiduak bertan behera

**X.U.** > BERGARA

Zapatuan kantxa barruan jokatu beharreko partidu gehienak normal jokatu bazituzten ere, futbolean zapatuko denboraleak eragin zuzena izan zuen, partidu guztiak atzeratu egin zituztelako. Hala, UDAk Pasaian jokatu beharreko norgehiagoka bertan behera geratu zen, eta baita Mondrak eta Tolosak Mojategin jokatu beharrekoa ere. Azken horiek, baina, jardunaldia 24 orduz atzeratzea adostu zuten.

**BESTE KATEGORIETAN BERDIN**

Gainontzeko kategorietako partidu ia guztiak ere bertan behera utzi zituzten, gehienek zapatuan jokatzen dute-eta.

**SASKIBALOIA** > LEHEN MAILA

# Mikeldiren aurka galdu ondoren, sailkapenean azkena dago MU

Javi Zurbanoren mutilek 84-78 galdu zuten ordura arte azkena zenaren kontra

Puntuei dagokionez, MU eta Mikeldi berdinduta daude orain: 16 puntu dituzte

ESTUDIOS MIKELDI
**84-78**
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE
Mondragon Unibertsitateko (MU) mutilek ezin izan dute bigarren garaipena jarraian lortu. Javi Zurbanoren mutilek Centro de Estudios Mikeldi taldearen kontra 84-78 galdu zuten Bilbon eta ondorioz, sailkapenean azkenak daude orain, 16 punturekin. Zapatuko partiduaren aurretik Mikeldik zuen tokian daude, hain zuzen ere, arrasatearrak. Puntutan berdinduta daude bi taldeak.

Gorka Kintana jokalariak azaldu digunez, indartsu irten ziren kantxara eta lehen bi laurdenetan ondo jokatu zuten. Arrasatearrak aurretik iritsi ziren deskantsura. Kantxara bueltatzean, baina, indar hori desagertu zen jokalarien artean: "Nahiko ahul jokatu genuen. Markagailuari buelta eman zioten eta gu ez ginen gai izan hori aldatzeko". Esan bezala, 84-78 gailendu ziren bilbotarrak.

**PARTIDUAREN GARRANTZIA**
Kintanak zapatuko partiduak zuen garrantzia azpimarratu du: "Beraiek, zapatuan, sailkapenean azkenak zeuden eta gu azken aurrekoak. Partidu garrantzitsua zen horregatik. Irabaziz gero, beraiek urrun geratzen zirelako. Baina azkenean ezinezkoa izan zen aurre hartzea".

MUko jokalariaren esanetan, Mikeldirekin jokatutako beste partiduan defentsan oso talde "biguna" zelaren inpresioa hartu zuten: "Irabazteko erraza zela iruditu zitzaigun, horretan galdu bagenuen ere. Zapatuan mentalizatuta geunden irabazteko moduko partidua izango zela baina, guk txarto jokatu genuen eta bilbotarrek, gainera, aurreko partidu horretan baino hobeto jokatu zutela iruditu zitzaigun. Atsekabetuta bueltatu ginen".

Lehen fasea amaitzeko lau partidu geratzen dira. Javier Zurbanoren mutikoen asmoa da bigarren fasera hiru garaipenarenarekin iristea.

**DOMEKAN, ZORNOTZA AURREAN**
Asteon Zornotza izango dute aurrez aurre etxean, Iturripen. Domekan jokatzeko da partidu hori, 18:00etan. Bizkaitarrak bigarren doaz sailkapenean, 24 punturekin. Kintanak partidu gogorra izango dela onartu du eta espero du norgehiagoka hori arrasatearrek euren jokoa hobetzeko balio izatea.



Etxean jokatu zuten zapatuena bergararrek. JOSETXO ARANTZABAL

**SASKIBALOIA** > GAZTE MAILAKO EMAKUMEAK

# Gogor borrokatu behar izan zuten bergararrek Goierrikoei irabazteko

Hasieran berdinduta joan ondoren, galtzen iritsi ziren deskantsura; baina, indartsu irten ziren eta markagailuari buelta ematea lortu zuten

SORALUCE BKE
**43-42**
ALUMINIOS ALEMAN-GOIERRI

**M.B.** > BERGARA
Partidua nahiko berdinduta hasi zen, Bergarako Soraluze Goierriko Aluminios Aleman taldearen kontra etxean jokatutakoa. Markagailua horren adierazle zen lehen laurdena amaitu zenean: 10-10 markatzen zuen horrek. Bigarren laurdenean txarto jarri ziren gauzak etxekoendako eta ondorioz, aurkariek aurre hartzea lortu zuten.

**DESKANTSUA**
Deskantsua, baina, ondo etorri zitzaien neska bergararrei eta apurka markagailuari buelta ematea lortu zuten. Azkenean, 43-42 nagusitu ziren etxekoak. Pozik zeuden jokalariak emaitzarekin. Azken bi partiduak galdu ondoren, zapatuan garaile irtetea lortu zutelako. Sailkapenean bosgarren postuan daude 22 punturekin eta gogor borrokatu beharko dute, lehenengo lauren artean geratzea nahi badute.

**LAUGARRENEN KONTRA**
Hurrengo partidua Donostian izango dute zapatuan, Alde Zaharreko Easo Loiola taldearen aurka. Norgehiagoka irabaztea ez da samurra izango, sailkapenean laugarren doazen nesken kontra lehiatuko dira-eta. Horiek 24 puntu dituzte.

**SASKIBALOIA** > SENIOR EMAKUMEZKOAK

# Eskoriatzarrak garaile Donostian

CAFES AITONA B
**42-60**
ESKORIATZA

**M.B.** > ESKORIATZA
Eskoriatzako neskek Cafes Aitona menderatu zuten zapatuan, Donostiako Paco Yoldi kiroldegian. Fernando Rasoren neskak markagailuaren aurretik joan ziren partidu osoan. Eskoriatzarrek hiru puntuko aldearekin amaitu zuten lehen laurdena; hurrengo bietan zortzi eta hamar artera handitu zuten eta laugarrenean 18 puntuko diferentzia ateratzea lortu zuten. Emaitza 42-60 izan zen.

**HIRUGARREN**
Entrenatzailea eta neskak gustura zeuden emaitzarekin. Defentsan txarto eta erasoan tarteka ondo ibili baziren ere, garaipena lortu zutelako. Sailkapenean hirugarren daude.

Asteon etxean jokatuko dute, Beasaingo Bareak taldearen kontra. Partidua zapatuan izango da, 18:00etan.

**SASKIBALOIA** > SENIOR GIZONEZKOAK

# Oñatikoen joko ona saritua izan zen

ASTIGARRAGA
**62-79**
ALOÑA MENDI

**M.B.** > OÑATI
Oso ondo jokatu zuten zapatuan oñatiarrek Astigarraren kontra eta hori emaitzan igarri zen. Aloña Mendi 62-79 nagusitu zen markagailuan eta sailkapenean laugarren daude.

Jagoba Gamarra jokalariaren esanetan, "Mesfidati joan ginen partidura, Astigarragakoak beteranoak dira eta bere kantxan oso talde gutxik irabazi dute". Mesfidantza hori, baina, azkar ahaztu zuten. Partiduaren kontrola izan zuten momentu gehienetan eta markagailuan aurretik ibili ziren partidu osoan; hamar puntutik gorako aldea izan zuten. Hasieran oso ondo jokatu zuten kanpoaldetik; horrek eta taldearen joko onak garaipena lortzea ahalbideratu zuen.

**LIDERRAREN KONTRA**
Egubakoitzean etxean jokatuko dute liderraren kontra: Ordiziako Biok Zerbitzuak. 20:00etan hasiko da partidua Zubikoan. Partidu gogorra izango dela badakite; partidu bakarra baino ez du galdu aurkariak. Baina, laugarren postu horri eustean saiatuko dira oñatiarrak.

EUSKADIKO TXAPELKETA > FORD MUGARRI

# Partiduari buelta eman, eta garaipena Ford Mugarrirendako

Atsedenaldira bost golengatik galtzen joan arren, arrasatearrek 35-32 irabazi zioten Barakaldori

Entrenamenduetan garrantzia gehiago ematen diote arlo fisikoari, eta hori nabari da emaitzetan



Ford Mugarriko jokalariek partidu zaialari buelta ematea lortu zuten. JOSETXO ARANTZABAL

TXOMIN MADINA. > ARRASATE
Aldapan gora hasi zen Ford Mugarri zapatuan etxean, Musakolako kiroldegian jokatutako partiduan. Aurkaria sailkapenean hirugarren postuan dagoen Calmec Barakaldo izan zuten arrasatearrek.

Bizkaitarrek hartu zuten aurrea markagailuan, eta hala, hiruzpalau goleko aldea mantendu zuten lehenengo zati osoan. Arrasatearrei, bestalde, kosta egin zitzaien partiduaren martxa hartzea: hegaletan eta defentsako lehen lerroan hainbat akats egin zituzten. Oreka falta zitzaien: gol asko jaso, eta kontraerasorako aukera gutxi. Lehen zatia amaitzean, 14-19 zen markagailuan jartzen zuena.

**ALDAKETEKIN, HOBERA**
Atsedenera joan aurretik, Edu Orgaz entrenatzaileak hainbat aldaketa egin zituen bai jokalarietan eta baita jokatzeko sisteman ere: hiru defentsa aurreraturekin aritzetik, birekin jolastera pasa ziren, eta atsedenetik bueltan, euren fruituak eman zituzten aldaketa horiek. Helburua, defentsa sendotzea zen, eta lortu zuten. Partidua bukatzeko 10 minutu inguruen faltan, Ford Mugarriko jokalari bat kanporatu zuten, eta horren segidan, Barakaldoko bi. 28na berdindu ostean, arrasatearrek markagailuan aurretik jartzea lortu zuten. 35-32 amaitu zen partidua, beti ere, Ford Mugarriren alde. Aipatzekoa da eskuin hegalean Arkaitz Massipek egindako partidu borobila, baita Aitor Aldanondorena ere. Berau izan zen arrasatearren goleatzaile nagusia, denera 11 sareratzerekin.

**ENTRENATZAILEA, GUSTURA**
Partidua amaitzean, Edu Orgaz Ford Mugarriren entrenatzailea oso pozik zegoen bere mutilek egindako lanarekin, bere hitzetan, denek egin baitzuten garaipena lortzeko ekarpena.

Orgazek esan zigun, azken asteotan entrenamenduak aldatu dituztela. Arlo fisikoa gehiago lantzen dute; bere esanetan, defentsa sendotu eta kontraerasoan hobetzeko; eta badirudi aldaketok eraginkorrak izan direla. Hamargarren segitzen du Ford Mugarrik zapatuko garaipenarekin.

GOREN MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETA >VERKOL ALOÑA NESKAK

# Gogor saiatu arren, Aloñako neskek ezin izan zuten liderra mendean hartu

Bukaera aldera gerturatu arren, Oñatiarrak atzetik ibili ziren partidu guztian zehar; 20-22 izan zen azken emaitza



Ahaleginak egin arren, azken jaurtiketetan huts egin eta Aloñakoek ezin izan zuten irabazi. JOSETXO ARANTZABAL

T.M.. > BERGARA
Sailkapenean goiko postuetan borrokan dabiltzan bi talderen arteko norgehiagoka egon zen jokoan zapatuan Oñatiko, Zubikoa kiroldegian. Batetik, Verkol Aloña, sailkapenean bigarrena; eta bestetik, lider dagoen taldea, Zarauzko Aiala. Oñatiarrentzat aukera paregabea zen garaipeneko bi puntuak lortu eta sailkapenaren buru jartzeko, baina azkenean, zoritxarrez ezin izan zuten halakorik egin.

**IA BETI ATZETIK**
Kosta egin zitzaien bi taldeei lehenengo gola egitea; eta hala, laugarren minutuan Aloñako neskak izan ziren baloia sareratzen lehenak.

Zarauztarrek, baina, lehenengoak zergatik diren erakutsiz, berehala hartu zieten aurrea Aloñakoei, eta behin hori lortuta, partida guztian zehar hiruzpalau goleko errentari eustea lortu zuten.

Oñatiarrak saiatu ziren aurkariak gainditzen, batez ere atsedenalditik bueltan. Azken minututean, ia gol bakar batera jartzea lortu zuten, baina jaurtiketetan ez ziren fin ibili, eta azkenean, 20-22 bukatu zen partidua.

**ORAINDIK ERE BIGARREN**
Porrotak porrot, Ainhoa Unamuno Aloñako entrenatzailea gustura zegoen bere jokalariek egindako lanarekin; batez ere, bigarren zatian erakutsi zuten motibazioarekin. Onartu zuen, baina, zarauztarren defentsa sendoak ez ziela askorako aukerarik eman.

Bi puntuak Zarautzera joan baziren ere, orain arte lortutako puntu errentari esker, oñatiarrek sailkapenean bigarren jarraitzen dute.

Datorren astean etxetik kanpo izango da Aloñaren norgehiagoka, kasu honetan, sailkapenean laugarrena den Jarrilleras taldearen kontra.

SORALUZE BKE

# Azken momentuan galdu zuen Bergarak

Ez zuten denboraz erreakzionatu; 32-31 bukatu zen lehia

T.M. > BERGARA
Lanak ezin dira azken momenturako utzi, eta gogotik ordaindu zuten atzo akats hori Soraluze BKEk Zumarragako Urola Laztiren aurka.

Lehenengo 40 minutuak oso txarrak izan ziren bergararrentzat: bi penalti kale egin zituzten, baita atezainaren aurrean egindako sei jaurtiketa ere. Hala, atsedenaldirako 17-14 zeuden galtzen.

Bigarren zatiko azken minutuetan erreakzionatu zuten Bergarakoek. Partidua bukatzeko 12 segundoren faltan, 31na berdinduta zeuden, baina aurkariek gola sartu eta ez zen partiduari buelta emateko astirik egon. Josu Agirre izan zen bergararrik golegileena, bederatzi golekin.

Josetxo Muniategi bergararren entrenatzailearen ustez, kosta egin zitzaien partiduan sartzea, eta orain helburua, hurrengo bi puntuak lortzea izan behar da.

**ZIKLISMOA** > TOUR DOWN UNDER

# Irizar mendiko saria irabazita itzuliko da Australiatik

## Atzo, tarteko helmuga batean egindako sprintari esker ekarriko du Irizarrek mendiko maillota

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

"Ez dut lasterketarik irabazi, baina zerbait irabazita itzuliko naiz etxera", zioen atzo Markel Irizarrek haren lagunarteari bidalitako mezuak. Izan ere, Australian egin duten Tour Down Under proban Oñatikoa aurrealdean ibili da, ihesaldi askotan sartuta, eta sailkapen orokorreko mendiko maillota eskuratu du.

**LEHENENGOZ, EGUENEAN**

Egueneko etapan jantzi zuen Irizarrek lehenengoz mendiko maillota, podiumera igotzea ez da egunero egiten den zerbait, baina lidergo horrek ez zion asko iraun, egubakoitzeko etapan Andoni Lafuente taldekideak hartu ziolako aurrea.

Irizar, baina, atzoko etapan ihesaldian sartzeko gauza izan zen –aurreko egunetan moduan–, eta tarteko helmugetako batean egindako sprintari esker egubakoitzean galdutako mendiko saria errekuperatu zuen.

**ZAPATUAN INOIZ BAINO HOBETO**

Azken etapei begira Euskaltel-Euskadiko taldearen helburuetako bat mendiko maillota defendatzea zen, Irizarrek ere aurreratu zuen hori: "Ea *Lafu*-k edo nik, bietako batek irabazten dugun". Eta, zapatuko etapan inoiz ez bezala ibili zen Oñatikoa: "Zapatukoa izan zen etaparik gogorrena, eta oso gustura geratu nintzen. Egia esateko, sekula ez dut horrenbeste gozatu. Mendate bat birritan igo behar genuen eta lehenengo ihes egindako talde batek egin zuen aurrera. Atzetik beste bost ziklistako talde batek irten zuen, eta ondorengo taldean Hincapie, Luis Leon,Rogers, Armstrong, O' Grady eta beste lau laguneko taldean sartu nintzen. Mendate erdian Armstrong ihes egiten ahalegindu zen, baina ez zuen lortu. Mendateko gainera iristeko kilometro baten faltan Armstrong eta biok batera gindoazen, eta ondokoa 178 pultsaziotara zihoala ikusterakoan moralak gora egin zidan".

Mendatea igo eta berehala atzetik zetorren taldeak harrapatu zituen, eta hurrengo itzulian mendate berak tropelean sarraski handiagoa eragin zuen: "35 lagun-edo geratu ginen aurrean. Eta helmugara iristeko kilometro baten faltan nahiz eta hiru talde tiraka ibili erasoa jo nuen; maldan gora zen azken tarte hori, eta neukanarekin aurrera egin eta 500 metroren faltan harrapatu zidaten; banekien zaila izango zela, baina oso gustura geratu nintzen". Pozik egoteko moduan hasi du Oñatikoak denboraldia.



Markel Irizar tropelean lehena, ondoan Lance Armstrong duela; oilarrekin batera ibili da Oñatikoa. MARK GUNTER



Markel Irizar, atzo, mendiko mallotarekin. MARK GUNTER



Irizarri maillota lotzen, podiumean. MARK GUNTER

**PILOTA** > GIPUZKOAKO TXAPELKETA

# Aitor Agirrek eta Egoitz Uribarrenek Gipuzkoako txapela jantzi zuten eguenean

## Zizurkilen jokatu behar zuten finala, baina pilotalekua bustita zegoelako Billabonara joan behar izan zuten jokatzera

**X.U.** > ARRASATE

Arrasateko senior mailako bikoteak azkenean lortu du Gipuzkoako Txapelketa irabaztea. Eta azkenean diogu finala birritan atzeratu behar izan dutelako. Hala, eguenean Antiguoko pilotariei 22-16 irabazita dira Aitor Agirre eta Egoitz Uribarren Gipuzkoako txapeldun berriak.

Eguenean ere zailtasunak izan zituzten finala jokatzeko, Zizurkilgo pilotalekuko hormak eta zorua bustita zeudelako. Hala, Billabonarako bidea hartu eta 20:30ean hasi behar zuten partidua 23:30ean amaitu zuten.

**HASIERA HOTZA**

Arrasateko bikoteari kosta egin zitzaion partiduan sartzea, eta Antiguokokoek ondo aprobetxatu zuten hori (8-0). Uribarren berotu zenean, baina, norgehiagokaren nondik norakoa erabat aldatu zen (16-16). "Norgehiagoka berdintzea lortu zutenean Arrasatek pilota biziago bat aukeratu zuen. Orduan, Uribarren sotamanoka eta Agirre ondo defendatzen, Antiguok ezin izan zuen besterik egin", adierazi du Mauri Zubillagak.

Gipuzkoako txapela jantzita, bikote berberak partidu ederra egin zuen hurrengo egubakoitzean Hernaniren kontra, Udaberriko txapelketan: "Bolinaga ordezkari moduan izanda, Udaberri txapelketarako talde polita dugu".

**MENDIA** > BESAIDEREN BATZAR OROKORRA

# Besaideren jarduna bertan behera gera daiteke

## Egubakoitzean egin zuten batzar orokorrean ez zen hautagairik azaldu

**X.U.** > ARRASATE

Besaide mendi elkarteak egubakoitzean egin zuen batzar orokorra, eta gai nagusia zen datozen lau urteotarako mendiko taldearen ardura hartuko zuten ordezkariak aurkeztea. Baina, ez zen ardura hori hartzeko hautagairik aurkeztu.

**DESAGERTZEKO ARRISKUAN**

Hala, zuzendaritza taldeak adierazi zuen martxoaren 6an egingo dutela hurrengo batzarra: "Besaide mendi elkartea, 50. urteurrena ospatu berri dugun honetan, egoera kezkagarri eta delikatu baten aurrean dago. Azken lau urteotan lanean aritu den zuzendaritza taldeak ez du momentuz erreleborik eta horrek elkartearen etorkizuna kolokan jartzen du. Egoera benetan larria da, eta hautagairik ezean martxoaren 6an Besaideko ekintza guztiak bertan behera gelditurko dira".

**MENDIA** > IÑURRATEGI, VALLEJO ETA ZABALTZAREN ERRONKA BERRIA

# Makalu mendia alpetar erara igotzen saiatuko da aurten Alberto Iñurrategi

Iñurrategirekin, Vallejo eta Zabaltza saiatuko dira Makalu tontorrera igotzen mendebal aldetik; Iñurrategiren lehen zortzimilakoa izan zen, 1990. urtean

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Juan Vallejo, Alberto Iñurrategi eta Mikel Zabaltza mendizaleak Makalu mendiko mendebaleko aldea igotzen saiatuko dira aurten. Makalu hitza tibeteraz Maha Kala da, eta haren esanahia: beltz handia. Vallejok adierazi zuen Iñurrategi eta Zabaltzarekin batera talde sendoa osatuko dutela. Makalu (88.463 metro) bide zailenetik igoko dutela adierazi zuen; mendebal aldetik, alegia.

**ZAILTASUN HANDIKO MENDIA**

Makalu mendia Txina eta Nepal artean dago, Everestetik 22 kilometrora, eta munduko bosgarren mendi garaiena da. Kanpamentu nagusitik hasita zailtasun handiko mendia da, harkaitzez beteriko mendi puska. Inguru hartan eguraldiak ere ez du askorik laguntzen. Aipatutako hiru mendizaleen artean ia-ia 30 zortzi milako batzen dituzte. Adierazi dute beste zortzimilako bat igotzearen arrazoia ez dela halako tontor bat gehiago egitea; Makalu igotzearen erronkak bultzatu ditu horretara.

Hiru mendizaleek ez dute helburu moduan 14 zortzimilakoak lortzea– nahiz eta Iñurrategik igota dituen–, hiruren helburua teknika handiagoa eskatzen duten tontorrak igotzea da, oraindik oso gutxitan edo inoiz eskalatu ez direnak. Makalu mendia alpetar erara igoko dute; hau da, zamaketari gutxirekin eta soka finko gutxi erabilita. Gainera, Makalu da Alberto Iñurrategik 1990. urtean igo zuen lehen zortzimilakoa.

Hala, Zeelanda Berriko, Frantziako eta AEBetako mendizaleek lortu gabeko saiakeren ostean, Jean Couzy eta Lionel Terrayk osatutako taldeak 1955ean lortu zuen lehen aldiz tontorrera igotzea.



Alberto Iñurrategi aurten saiatuko da Makalu igotzen, Vallejo eta Zabaltzarekin batera. GOIENKARIA

**ZIKLOTURISMOA** > LIZENTZIAK BERRITZEA

## Otsail amaiera arte dago lizentziak berritzeko aukera

Aurten lizentziak berritzeko ez da beharrezkoa osasun azterketa egitea

**J.Z.** > BERGARA

Debagoieneko zikloturista taldeek zabalik dute 2009. denboraldiko lizentziak berritzeko epea. Arrasaten berritu nahi duenak klubaren egoitzara joan baino ez du (Ignazio Zuloaga kalea 10) urtarrileko zapatuetan, 11:00etatik 13:00ak bitartean. Bergaran, berriz, otsailaren 28ra arte dago epea zabalik. Interesatuek Kutxako 2101007081000675216 kontu zenbakian 92 euro sartu beharko dituzte. Bestalde, Euskadiko Federazioak aurtengo denboraldirako derrigorrezkoa ezarri nahi zuen osasun azterketak egitea eta gainditzea. Baina, ez dute aurtengo denboraldian aurrera eramango; datorren denboraldirako utziko dute.



Zikloturista talde bat Dorletako Ama birjinaren aurrean. GOIENKARIA

**MENDI LASTERKETAK** > ZEGAMA-AIZKORRI MARAROIA

## Zegama-Aizkorri mendi maratoian izena emateko epea zabalik, dagoeneko

Izenemate epea urtarrilaren 30a arte dago zabalik; munduko koparako puntuagarria izango da proba

**J.Z.** > BERGARA

Datorren maiatzaren 24an jokatuko da VIII. Zegama-Aizkorri mendi maratoia. Izenematea joan den astelehenean zabaldu zen, eta urtarrilaren 30a arte egongo da zabalik, *www.zegama-aizkorri.com* helbidean.

Proban parte hartzeko izenematea 18 urtetik gorako atleta, mendizale eta kirolari guztiek egin dezakete; gehienez ere, 400 lagun onartuko dira. Ordaindu beharrekoa 40 euro izango da federatuendako eta 50 euro, berriz, federatuta ez daudenendako. Proba Aizkorri mendizerraren bi isurietatik pasatzen da. 42,195 kilometroko luzera du eta desnibel metatua 5.472 metro da. Zortzigarren edizio hori 2009 World Skyrunning-erako puntuagarria izango da. Sariei dagokienez, gizonezkoetan irabazleak txapela, 1.200 euro eta garaikurra jasoko ditu sari moduan. Beteranoen mailako irabazleak, berriz, txapela, garaikurra eta bi lagunendako bazkari bateko txartela. Emakume mailan, lehen sailkatuek gizonezkoen sari berak jasoko dituzte.

**BILERA INFORMATIBOAK**

Antolakuntzak proba pasatuko den puntu ezberdinen gaineko informazio topografikoa ezagutzera emango du. Horrez gain, antolaketari buruzko xehetasun garrantzitsuenak ere ezagutaraziko ditu Zegamako Herri Eskolako gimnasioan maiatzaren 24an, 18:00etan.

**2008AN DEBAGOIENDARRAK**

Iazko maratoian ibarreko azkarrena Aritz Kortabarria arrasatearra izan zen gizonezkoetan. Emakumezkoetan, berriz, Mari Fran Alonso, ibarreko emakume bakarra.

**ESKI IRTEERAK**

## Datozen asteotarako hainbat eski irteera

**J.Z.** > BERGARA

Ibarreko mendi elkarteek eskiatzera joateko irteerak antolatu dituzte. Arrasateko Besaide Mendi Elkarteak otsailerako bi irteera antolatu ditu: lehena, Galarreta-Malkorra-Arantzazu mendi irteera, otsailaren 8an; eta mendiko eski irteera, berriz, otsailaren 14an eta 15ean, Piau Engaly-Gedre/Bareges-Hautacam. Oñatin, Aloña Mendiko eski sailak otsailaren 20tik 22ra egingo du irteera, Baqueira-Beretera. Bergarako Pol-Pol mendi sailekoak ere Baqueirara joango dira asteburu beretan. Aramaioko Orixol elkartekoak otsailaren 14an eta 15ean joango dira Pirinio aldera, baina lekua ez dute oraindik zehaztu.

**ANTZUOLAKOAK, CANDANCHURA**

Antzuolako Arrola elkartekoak, berriz, otsailaren 14an Candanchura joango dira. Azkenik, Aretxabaletako Murrukixo Mendizale Elkartekoak otsailaren 14an eta 15ean eta Luz Saint-Sauveur herrira joango dira.

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Oihana Kortazar > 'Heuk proba ezan' ekimeneko entrenatzailea

# "Gaitasun fisikoa baino, korrika egiteko beharrezkoa gogoa da"



Oihana Kortazar. GOIENKARIA

**Fortunak *Heuk proba ezan* ekimena jarri du abian; helburua, emakumeak korrika egitera animatzea da. Ibarrean, Bergaran eta Arrasaten jarri da martxan ekimena. Oihana Kortazar elgetarra da Bergarako entrenatzailea.**

**Ze helburu du Fortunak martxan jarri duen ekimenak?**

Fortunak antolatutako ekimena da; gauza da, eurak Alemaniara joan zirela Behobia antzeko lasterketa bat ikustera. Eta, konturatu ziren han emakumeen parte-hartzea askoz ere handiagoa zela. Hori aztertzen hasi ziren eta konturatu ziren emakumeek korrika egitera animatzeko ekimen bat antolatu zutela. Hala, hori ikusita, hemen ere antzerako ekimena martxan jartzea erabaki dute.

Esan behar da euren asmoa ez dela gero emakume horiek Behobia lasterketan korrika egitea; baizik eta, emakumeak korrika egitera animatzea.

**Gipuzkoako hainbat herritan jarri dute martxan ekimena.**

Bai, Fortuna elkartea Diputazioarekin jarri zen harremanetan eta hainbat herritan hasi dira ekimenarekin. Eskatzen duten bakarra Udalak kiroldegia erabiltzeko aukera ematea da.

Debagoieneko kasuan, bi herritan jarri da martxan ekimena: Bergaran eta Arrasaten.

**Dagoeneko hasi zara entrenamenduekin. Zer egiten duzue?**

Lehenengo, taldea batu nuenean, bakoitzari galdetu nion korrika egiteko ze ohitura zuen; hau da, astean zenbatean joaten zen korrika egitera, zenbat kilometro egiten zituen, zenbat denboran... Gainera, adin tarte ezberdinetako jendea dago; hasi 23 urtetik eta 48 urte ingurura.

Lehenengo egunean korrika egitera joan ginen nik ikusteko bakoitzaren korrika egiteko estiloa zelakoa den, eta ze abiaduran korrika egiten duten jakiteko. Horren arabera nik entrenamendu bat prestatu dut, poliki-poliki hasteko. Entrenamenduak hamar aste ingurukoak izango dira. Helburua da lortzea kilometro bat egitea bost minutu baino gutxiagoan. Hori lortzeko korrika egiten dugu, baina ez jarraian bakarrik; serieak egiten ditugu.

Bestalde, luzaketa ariketak ere egiten ditugu; zela egin eta noiz egin erakusten diet. Besteak beste, jana eta pultsometroak duten garrantzia ere azaldu diet.

**Batera ateratzen zjjj**

Agorrosineko atletismo pistan egiten ditugu entrenamenduak. Taldekideek ez daukate zertan hara joan beharrik korrika egitera, interes handiena serieak egiteko izaten dute.

Serieak egitea nahiko gogorra izaten da; adibidez, 300 metroko hiru serie egiten 10 kilometro korrika egiten baino gehiago nekatzen dira.

**Korrika egiteko teknika landuko duzue gehienbat.**

Bai, eurak korrikan hobetzea da lortu gura duguna. Korrika egiten duten denbora hobetzea; adibidez, hamar kilometro denbora gutxiagoan egitea eta, horrez gain, gorputzeko sentsazioa hobea izatea.

**Zuk zeuk lasterketetan parte hartzen duzu. Zelakoa da emakumeen parte-hartzea?**

Korrika norbere kabuz ibiltzen diren emakumeen partaidetza ikusita, parte-hartzea txikia dela esan daiteke. Gure taldean 18 lagun gara, eta horietatik bost besterik ez dira joaten herri krosetan korrika egitera. Gainontzekoek, gainera, ez dute asmorik ere lasterketetan parte hartzeko, ez dute gura.

> **"Fortuna elkartekoak Alemaniako lasterketa batean egon ziren eta kontura ziren han emakumezkoen parte-hartzea handiagoa zela"**

**Europako beste herrialde batzuekin alderatuta, hemengo parte-hartzea txikiagoa da.**

Bai, zehazki, Fortunakoak Alemaniako lasterketa bat ikustera joan ziren. Behobiaren oso antzerakoa omen da, luzerari dagokionez, eta baita antolamenduari dagokionez ere.

Behobia batean, esaterako %14koa da parte-hartzea, eta Europako beste herrialde batzuetan %20ra iristen da.

**Emakumeak anima daitezen, ze onura du korrika egiteak?**

Korrika egitea ona da osasunarendako. Gainera, lagun artean joanez gero, egunerokotasunetik deskonektatzeko aukera ematen du. Emakume askok ez du bere burua korrika egiteko gauza ikusten, baina hastea da dena. Astero-astero nabaritzen dira hobekuntzak.

**Zer da beharrezkoa korrika egiteko? Berezko gaitasunik behar da?**

Gaitasun fisiko ona izanez gero, hobeto ibiliko zara. Baina, korrika egiteko beharrezkoa dena gogoa izatea da.

**Pentsatzen dut oinetako onak izateak bere garrantzia izango duela.**

Bai, hori oso garrantzitsua da. Gainera, gomendagarria da podologoarengana joatea; ez agian hasi berria den bat, baina bai korrika egiteko ohitura duena.

Gerta daiteke plantilla beharra daukala ez dakien norbait plantilla egoki barik ibiltzea korrika eta horren ondorioz lesioren bat izatea. Epe luzera minak sor daitezke, egokiak ez diren oinetakoak erabiltzen baditugu. Onena oinetakoak erostera atletismoko dendetara joatea da.

**Azterketa medikuak egitea ere garrantzitsua da?**

Bai, garrantzitsua da azterketa medikua egitea, batez ere jakiteko norberaren muga non dagoen. Baita ere, oso garrantzitsua da entrenamenduetan pultsometroa erabiltzea.

Azken finean, dena ondo joateko zure pultsazioa zein den jakin behar duzu; eta, hortik gora baldin bazaude, badakizu erritmoa jaitsi beharra duzula.

Adibidez, Behobia batean askotan ikusten da jendea helmugara egoera nahiko txarrean iristen. Behobia egiteko entrenatu dute, baina beharbada euren egoera ez da ona.

**Ezberdintasuna dago emakumezkoen eta gizonezkoen artean korrika egiterako orduan?**

Nire ustez, gizonezko eta emakumezkoen konparaketak egiterakoan lehiakortasunari begiratu behar zaio. Gizonezko oso lehiakorrak daude eta beste batzuk, ostera, ez. Emakumezkoetan ere berdina gertatzen da.

Egia dena da mutil gehiago ibiltzen direla korrika, baina kulturagatik izan daiteke. Orain gero eta emakume gehiago ikusten dira, baina orain arte ez dira asko ikusi.

**Zein da adin egokia korrika hasteko? Eta muga non dago?**

Hasi, txikitan hasi daiteke. Ez dago adin konkretu bat; eta, 40 urterekin norbaitek hasi gura badu, ez du batere arazorik.

Mugarik, ostera, ez dago. Adibidez, mendiko lasterketetan 70 urteko emakume bat ibiltzen da korrika. Bizitza guztian korrika egin izan baduzu, ez dago mugarik. Hori bai, zeure burua zaindu behar duzu, eta jarraikortasun batekin korrika egin.



> **BRUTAL MELODY**
Arrasateko thrash-core talde beteranoaren kontzertuaren kronika egin dugu **> 30**



> **TXOTXONGILOAK**
La Enana Naranja taldearen 'Inmundo' txotxongilo ikuskizuna Amaia antzokian **> 31**



> **MAITE ITURRARAN**
'El conquistador del fin del mundo' saioan esku hartu duen arrasatearrari elkarrizketa **> 40**



Iñigo Arregi arrasatearra Mondragon Taldeko LKS kooperatibarendako egindako eskultura ondoan, Garaia Berrikuntza Guneko egoitzan. JOSETXO ARANTZABAL

**Iñigo Arregi** > Artista

# "Nire mundu pertsonala ez da ulertzen diziplina bakar batekin, denekin baizik"

MIRIAN BITERI > ARRASATE

**Lanpetuta dabil azkenaldian Iñigo Arregi artista arrasatearra. Enpresa ospetsuendako eskulturak egin ditu eta erakusketak antolatzen eta bere ibilbidea jasotzen duten erakusketak ezagutzera ematen buru-belarri dabil. Hala ere, tartetxo bat atera du ASTELEHENEKO GOIENKARIArekin berba egiteko.**

**Zelatan jaso zenuen LKS enpresak Garaia Berrikuntza Gunean duen egoitzarendako eskultura egiteko proposamena?**

Enkargua jaso nuen. Hori egitean eskatu zidaten lan horrek bizikletak uzteko tokia izatea komenigarria zela. Oso proposamen interesgarria iruditu zitzaidan. Ez da lehen aldia egiten dudala eskultura bat, aldi berean funtzio bat daukana. Hortaz, kostata baina bilatzen nuena egitea lortu nuen. Arte lan funtzionala da.

**Horretaz gain, Elorrion dagoen Eroskiko egoitza zentralerako beste arte lana egin duzu...**

Hala da. Bi proposamen aurkeztu nituen eta han jarrita dagoena aukeratu zuten. Esan beharra dago kasu horretan atzetik lan asko dagoela. Formatu handiko eskultura da, bost metroko altura dauka. Maketa eskala txikiagoa izaten da eta erreala egitean arazo teknikoak sortzen dira.

**Oztopoak alde batera utzita, gustura geratu zara?**

Bai, oso pozik geratu naiz emaitzekin. LKS eta Eroski kooperatibendako egindako piezak erreferentzia dira.

**Eta orain zertan zabiltza orain? Zeintzuk dira epe laburrera dauzkazun proiektuak?**

Proiektu askorekin nabil batera. Esaterako, joan den astean hiru lekutan batera izan nituen erakusketak. Batetik, Tortosako museoan lanak dauzkagu Debagoieneko hainbat artistek. Bestetik, urtarrilaren 16an, beste erakusketa bat inauguratu nuen Gasteizen Felisa Navarro galerian. Eta, azkenik, egunotan Vigon arte garaikideko azoka egon da eta han ere nire lanak egon dira, Madrilgo galeria baten.

**"LKS eta Eroskiko kooperatibendako egindako piezak erreferentzia dira"**

**"Oso inportanteak dira erakusketak. Lanak egiteaz gain, ezagutzera eman behar dira horiek"**

**Horretaz aparte, azken hilabeteotan ibilbide osoko erakusketa ibiltariarekin ibili zara. Horrekin jarraitzen duzu?**

Bai. Erakusketak oso inportanteak dira. Lanak egiteaz gain, horiek ezagutzera eman behar ditugu. Hortaz, aurten, urte osoan ditut erakusketak.

Otsailean, esaterako, Madrilera noa, arte garaikideko Art azokara. Datozen hilabeteotan ere Espainiako hiriburuko beste hainbat galerietan ikusi ahal izango dira nire obrak. Urritik abendura bitartean, bestalde, Bartzelonan erakutsiko ditut.

**Guzti hori gutxi balitz, Maalako Errabalan denda eta erakusketa aretoa duzu...**

Hala da. Urteak daramatzagu han hilero erakusketak antolatzen. Hilabete batzuk eman ditugu erakusketak egin gabe, lanarekin arduratuta ibili naizelako. Baina, ekin diogu berriro horri. Egunotan, Fernando Biderbost artista bilbotarra dugu eta datorren hilabetean, *Eskerri* eskultorearen obrak izango ditugu.

**Hainbeste zereginekin, denbora daukazu artea sortzeko?**

07:00etatik gauerdira arte egoten naiz buru-belarri. Malgutasuna daukat antolatzerakoan, ez daukat estudioan ordu kopuru zehatza egon behar. Margoak, eskulturak eta grabatuak egiten ditut eta guztiak lotuta daude. Nire mundu pertsonala ez da ulertzen diziplina bakar batekin, denekin batera baizik. Hortaz, erakusketetan, normalean, obra guztiak ikus daitezke. Diziplina guztietan eroso nago, zerbait eskatzen didatenean badakit ze lan mota egin behar dudan. Esperientziak asko egiten du horretan.



Taldeko sortzaile Pako, Juan eta Aner, Numen taldeko 'Otuto' eta S.A.ko Jimmyk lagundu zituzten; baita bukaeran 'Txemi' baxu jotzaile ohiak (ezkerrean) ere. IMANOL SORIANO

**MUSIKA** > BRUTAL MELODY

# Thrasha eta hardcorea batzen jakin duen talde umil handia

### Soziedad Alkoholika eta Numen taldeko kide banaren laguntzarekin, 3.60 aretoan aritu ziren

### Ordubeteko emanaldian, maketa eta diskoko kantuak eta hainbat bertsio eskaini zituzten

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE
Iraganeko taldeen etengabeko itzulerak bizi izaten gabiltzan honetan, Brutal Melody talde arrasatearra ez da salbuespena izan. Itzulerako lehenengo kontzertua iazko uztailean egin zuten, baina taldekideak beste hainbat proiektutan murgilduta daudenez, asteburu honetara arte ez dira berriro agertokira igo.

Brutal Melody ez da inoiz jendetza handiko taldea izan, baina jarraitzaile fidelak ditu, amorratuak. Horiek guztiek ez zuten kale egin 3.60 aretoko hitzordura. Aretoa goraino bete ez zen arren, giro beroa izan zen.

**XASTA TALDEA AURRETIK**

**Pianoa.** Oso egoera oneko pianoa saltzen dut. 1.600 euro.

**Pianoa salgai.** Pianoa salgai: Yamaha Clavinova. Ia erabili gabe dago eta oso ondo dabil. 635-75 74 54

**Salgai.** Baxera-garbigailua, edalontzi-garbigailua, lau lanpara rustiko, mahaiak eta aulkiak salgai. 649-84 67 09.

**Snow-blade eskiak eta botak salgai.** Snow-blade eskiak eta 44 neurriko eskiko botak salgai. Oso gutxi erabilita. 90 eurotan biak. 663-72 78 23

inmobiliaria Etxebila
Felipe IV etorbidea 4. DONOSTIA
Tel.: 943 44 61 66

**ALOKAIRUAN**

**PASAI SAN PEDRO.** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kaira begira. 750 €.
**MARTUTENE.** 2 edo 3 logela. 2 bainugela. Igogailua. 650 € eta 790 €.
**AMARA. OSINAGA.** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. 900 €.
**LOIOLAKO ERRIBERA.** 3 logela. Terraza. Oso polita. Garajea. 1.100 €.

**SALMENTAN**

**AMARA.** Felipe IV.aren etorbidea. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Eguzkitsua. 36.200.000.
**AMARA.** 70m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Ikuspegi ederrak. 53.990.000.
**AMARA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza (60m2). Berritua. 45.400.000.
**AMARA.** 70m2. Igogailua. Terraza. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 46.500.000.
**AMARA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Dena kanpora begira. Trastelekua. 40.990.000.
**AMARA.** Atikoa. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 40.990.000.
**ALDE ZAHARRA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. 45.990.000.
**ANTIGUA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Ikuspegi ederrak. 46.950.000.
**HIRIGUNEA.** Arrasate kalea. Goiko solairua, terrazarekin. Kalera begira. Igogailua. 56.950.000.
**GROS.** Itsasora begira, erabat. Apartamentua. Oso polita. 52.500.000.
**GROS.** Sagües. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 41.500.000.
**GROS.** Txofre. Apartamentua. Goi solairua. Balkoia. Trastelekua. 35.900.000.
**GROS.** Kolon pasealekua. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 35.000.000.
**MARTUTENE.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Sartzeko moduan. 29.500.000.
**MARTUTENE.** Salmentan edo alokairuan. 2 logela. Kanpora begira. 650 € 31.400.000.
**PASAI DONIBANE.** Itsasora begira. Terraza. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. 44.950.000.
**LEZO.** Baserri etxea. 3 solairu. Garaje handia. Lorategia. Herriaren erdian. Oso polita. 94.850.000.
**LEZO.** Baserri etxea. 4 logela. Lursailak. Txokoa. 46.800.000.
**LASARTE.** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. Berritua. 35.500.000.

Jarduna
administrazio zerbitzuak

KONTABILITATEA • ZERGAK • NOMINAK • KOBRANTZAK

**Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen du Jardunak.**

Zerbitzu guztiak **euskaraz** betetzea bermatzen dizugu

bai euskarari
zerbitzua eta lana euskaraz

Zure enpresarentzat administrazio zerbitzu profesionala eta euskalduna nahi baduzu,
**jarri harremanetan gurekin**

**Martin Ugalde Kultur Parkea ANDOAIN**
**Tel.: 943-30 40 30 • administrazioa@jarduna.net**
**www.jarduna.net**

**Trek 5500 bizikleta salgai.** Bizikleta salgai. Trek 5500, karbonozkoa. Ultegra dura ace. Ordezko bi gurpil barne. 1.000 euro. 617-08 05 01 edo 943-78 29 19.

**Ukendua.** Fistula edota erredura arazoak, zirujia gabe. Dena naturala. Deitu konpromisorik gabe 618-62 83 11 telefono zenbakira edo idatzi mezu bat*garitxu70@hotmail.com*

**VHS bideoak salgai.** Umeentzako VHS bideoak salgai. 656-78 64 64..

## 802. EROSI

**Bizikleta** erosiko nuke. Hamar urteko neska batentzako, bizikleta bat erosi nuke. 943-36 63 59. Maite.

**Dantzari jantzia** erosiko nuke, neskendakoa. Neurria: 14-16, gutxi gorabehera. 652 72 32 50.

**Eskiak eta botak.** Metro bateko eskiak eta 27-30 zenbakiko botak erosiko nituzke. 608 77 38 59.

**Klarinetea.** Umeendako egurrezko klarinetea erosiko nuke. 655 74 89 19.

## 803. EMAN

**Gasolioko biltegi txikia oparitzen da.** Etxarri Aranatzen gasolioko biltegi txikia oparitzen da. Neurria, gutxi gorabehera: 130 x 70 x 50. 696 199790.

## 804. HARTU

**Etxeko altzari, elektrogailu, ohe erropak eta gortinak behar dira.** Etxeko altzariak, etxetresna elektrikoak, ohe-erropa eta gortinak. 676-44 4 1 71.

## 806. GALDU

**Autoko giltzak galdu.** Autoko giltzak galdu ziren Etxarri Aranatzen abenduaren 12an. 686-92 23 33 telefonora deitu.

**Baserritar jantziko zapi txuria Etxarrin.** Abenduaren 24an, Olentzero egunean, baserritar jantziko eskuz egindako zapi txuria galdu zen Etxarri Aranatzen. 649-17 98 11.

**Poltsa marraduna** galdu nuen abenduaren 21ean Arrasateko San Andres eta Consum dendaren artean. Barruan lepoko morea, argazki kamera beltza eta disko gogor bat zeuden. Sarituko da. 650 40 42 07 Amaia.

**Erlojua.** Erlojua galdu nuen urtarrilaren 18an Zabalotegi eta Kruz Gallastegi artean ( Bergara). Emakumeendakoa. Niretzat balio pertsonala dauka. 639 97 21 51.

**Giltzaria galduta Altsasun.** Volkswagen autoko giltza eta beste giltza batzuk dituen giltzaria galdu da Altsasun, Sociedad Deportiva Alsasua elkarteko inguruetan. Giltzariak mosketoi bat dauka. Topatu dituenak dei dezala 948-56 20 19 telefono zenbakira.

**Harizko manta galdu dut Zarautzen.** Zarautz erdialdean, harizko manta bat galdu dut. Marraduna eta koloretakoa. Aurkitu baduzu deitu: 657-73 68 13 .

**Jaka beltza galdu nuen Arrasateko Branka tabernan.** Jaka beltza galdu nuen abenduaren 20an Arrasateko Branka tabernan. Nahastuta norbaitek nirea eraman zuen eta nik beste batena. Norbaitek aurkitu badu dei diezadala. 630-19 64 67

**Loro bat galdu zaigu Arrasaten, Santa Ageda auzoan.** Loro bat galdu zaigu. Yaco arrazakoa. Grisa da eta buztana gorria dauka. Arrasaten Santa Ageda auzoan urtarrilaren 14an galdu zitzaigun. Rai izena dauka eta hizlaria da. 659-87 47 60

**Mugikorra galdu dut.** Gabon zahar gauean mugikorra galdu nuen Aretxabaletan. Orly, ezkutu eta Izartu tabernen artean. Samsung zuria da. Deitu 943-79 00 80 edo 656-72 59 21 telefono zenbakietara.

**Umearen txamarra** galdu genuen domekan Arrasateko autobus geltokian. Deitu 675 00 66 03 edo 615 79 13 21 telefono zenbakira.

## 807. AURKITU

**3 CD Etxarri Aranatzen.** Etxarriko liburutegiaren atarian 3 cd opatu dira, oparietarako paperetan bilduta eta Gorka izena duela. Galdu dituena pasa dadila Etxarri Aranazko Beleixe irratitik. 948-461220

**Bizikleta txikia .** Udan bizikleta txiki bat topatu zen Etxarri Aranazko Arzabal kalean. Jabea pasatu dadila Sakana elektrizitate dendatik.

**Giltza sorta aurkitu da.** Giltzak: Zumarragako ospitaleko aparkalekuan giltza sorta bat agertu da, indarreko giltzarrapoarekin. 616-96 84 07.

**Nintendo.** Aretxabaleta. Ilargi plazan Nintendo bat aurkitu zuten ume batzuek urtarrilaren 9an. 943-79 99 18

**Txanoa** aurkitu dut Eskoriatzako San Juan kalean asteburuan. Deitu 943-71 46 50 telefonora

# 9/ HARREMANAK

## 902. HARREMANAK

**Donostia alde zaharreko joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entseguetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com*

**Lagun bila.** 45 urteko gizonezkoa 25-50 urte arteko lagun gayen bila, konpromisorik gabeko harremanetarako. Topaleku lasaia daukat.*alulaga@yahoo.es*

**Neska euskalduna.** Neska euskaldun bat ezagutu nahiko nuke. Telefonoa: 650-95 10 02

**Sasi-musika.** Ezohiko musika sorkuntzarako elkarlan gune bat: inprobisazioa oinarrizko adierazpide eta sorbide bezala. Teknika maila eskakizunik ez. Adin mugarik ez. Instrumentuak: ideien eta soinuaren edozein bitarteko. Informazioa: *sasimusika. blogspot.com..*

## 904. BESTELAKOAK

**Sevillatik Oviedora** doan Ruta de la Plata egin nahi dut apiril eta maiatz artean, motxilarekin eta bizikletaz. 50-60 urte inguruko inork nirekin etorri nahi badu, deitu. Ignacio Blazquez. 943 79 65 99 edo 639 48 90 49.

**Donostialdetik Bilbora joateko autoa konpartitzea.** Goizero Donostiatik Bilbora (Santutxu-BegoÒa-Txurdinaga zonaldera) joaten bazara bidaia elkarrekin egin dezakegu. 653-74 32 35

Lan poltsa

**Web orrien diseinatzaileak.**
Laneko ibilbidea egin nahi dutenentzat
**Bikoizketaren profesionalak**
TB, zinema eta irratiko sektorean hasi nahi dutenentzat.
**Goi mailako sukaldaritza**
Arlo horretan lana egin nahi dutenentzat.
**Barrualdeko diseinatzailea.**
Enpresa liderrak diseinatzaileak behar ditu sektorean lana egiteko.
**Paisaiaren Ikerketa**
Etorkizuneko profesionalak behar dira lorezaintza lanak egiteko.
**Programatzaileak**
Lan arlo honetan lanean hasi nahi dutenentzat.
**Irudi eta Soinu Teknikariak**
Sektorean hasi nahi dutenentzat.
**Disenatzaile grafikoak**
Laneko ibilbidea egin nahi dutenentzat.

Informatzeko telefonoak:
943 422 674
944 215 708
695 902 302

klothër

HITZA lan poltsa

**Goierriko HITZAk**
langile hauek behar ditu Goierrin:

**BANATZAILEAK/ BUZONEATZAILEAK**

**lan baldintzak:**
-Egunean 4 ordu.
-Goizeko 09:00etatik 13:00etara.
-Astean sei egun. Asteartetik igandera.

deitu **943-30 35 55** telefono zenbakira

HITZA lan eskaintza

**Busturialdeko HITZAk**
kazetaria behar du

**KAZETARIA**

**Eskaintzen da:**
Etorkizuneko proiektu batean parte hartzeko aukera.

**Eskatzen da:**
Kazetaritzan, euskal filologian edo historian lizentziatua edo ikaslea izatea.

**kontutan hartuko da:**
Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
Quark X Press programa erabiltzen jakitea
Autoa izatea
Hizkuntzak jakitea
Eskualdea ondo ezagutzea
Diseinu lanak egiten jakitea

bidali zure curriculuma helbide elektroniko honetara:
busturialdea@busturialdekohitza.info




**Laster GIDA 2009 zure etxean!**

Gida osatuena erabilgarriena eta berriena.

**Zure herriko denda eta enpresen telefonoen gida.**

**Eta aurten gida komertziala baita *Goiena.net* atarian ere!**
***http://goiena.net/gida***

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 3 | | | | 7 |
| 9 | | | | | 1 | | 4 | |
| | | | | | 2 | | 5 | |
| | | 5 | | 7 | | 1 | | |
| | | 9 | | | | 6 | | |
| | | 1 | | 8 | | 3 | | |
| | 8 | | 6 | | | | | 9 |
| | 3 | | 5 | | | | | 2 |
| 7 | | | | 4 | | | | |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| (argazkia) | | | Inprimatu / * Irudiko ibaia | | Omenaldien xedeak / Haurra | | Gaskoniako hizkuntza / Juntagailua | |
| | | | | | | | | |
| | | | Ilusio / Igorpen egile | | | | | |
| Iduneko / Serbiako hiriburua | | Zikiratuak / Behar | | | | | | |
| | | | | | | | Oxigenoa / Toka, dio | |
| Xake-pieza / Frantziako ibaia | | | | | Nahi, irrika / Galdetzaile bat | | | |
| | | | | Da, haiei / Tantaloa | | | | |
| Kaltegarri / Koreako | | | | | | | | |
| | | | | | | Errepikatuz, gorotza | | |

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Nola lapurtu zioten dirua?




## hizki salda

Gipuzkoako 65 hondartza

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| B | T | S | E | U | Z | P | L | O |
| S | E | J | K | B | A | D | M | N |
| A | Z | A | T | L | R | P | N | D |
| T | F | D | E | B | A | B | E | A |
| U | H | I | L | D | U | I | K | R |
| E | S | K | O | N | T | X | A | R |
| F | D | U | T | B | Z | T | A | E |
| Z | A | K | F | L | S | J | D | T |
| X | T | A | N | T | I | L | L | A |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| B | T | S | E | U | Z | P | L | O |
| S | E | J | K | B | A | D | M | N |
| A | Z | A | T | L | R | P | N | D |
| T | F | D | E | B | A | B | E | A |
| U | H | I | L | D | U | I | K | R |
| E | S | K | O | N | T | X | A | R |
| F | D | U | T | B | Z | T | A | E |
| Z | A | K | F | L | S | J | D | T |
| X | T | A | N | T | I | L | L | A |

**Hieroglifoa:** Ez daki esaten

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 5 | 8 | 9 | 3 | 4 | 2 | 1 | 7 |
| 9 | 2 | 3 | 7 | 5 | 1 | 8 | 4 | 6 |
| 4 | 1 | 7 | 8 | 6 | 2 | 9 | 5 | 3 |
| 8 | 6 | 5 | 3 | 7 | 9 | 1 | 2 | 4 |
| 3 | 4 | 9 | 1 | 2 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 2 | 7 | 1 | 4 | 8 | 6 | 3 | 9 | 5 |
| 5 | 8 | 2 | 6 | 1 | 7 | 4 | 3 | 9 |
| 1 | 3 | 4 | 5 | 9 | 8 | 7 | 6 | 2 |
| 7 | 9 | 6 | 2 | 4 | 3 | 5 | 8 | 1 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| (argazkia) | | | ■ | I | ■ | O | ■ | G |
| | | | U | R | U | M | E | A |
| | | | ■ | A | M | E | T | S |
| ■ | L | ■ | I | R | E | N | A | K |
| B | E | L | G | R | A | D | ■ | O |
| ■ | P | E | O | I | ■ | U | Z | I |
| L | O | I | R | ■ | Z | A | I | E |
| ■ | K | A | L | T | E | K | O | R |
| K | O | R | E | A | R | ■ | K | A |

## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Zure nagusia, Marte, orain Libran dago; Libra zure kontrako zeinua da. Momentu onean zaude guraso eta familiakoekin dituzun harremanak sendotzeko.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Ez da ona lan larregi egitea, horregatik bidaia bat egin beharko zenuke. Ez zaitez nagia izan eta irten zaitez etxetik jendea ezagutzeko.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Goza itzazu igaroko dituzun une onak. Bikotekidearekin (edukiz gero) berba egin ezazu eta ez utzi ezerk edo inork bana zaitzaten.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Ez zaude zure bizitzako unerik egokienean. Tristura alde batera utzi beharko zenuke. Ardura zaitez gehiago zure buruaz, baita lagunetaz ere, ea zertxobait alaitzen zaren.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Utz ezazu harrokeria alde batera eta jabetu zaitez lagunak beharrezkoak izango dituzula une latzetan. Kontuan hartu beharreko gauza bakarra zuen arteko erlazioa da.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Maitatzen dituzun gauza guztiek zure denboraren zati handi bat kentzen dizute, batez ere, lanean aritzen zarenean. Horrek ongizatea ekarriko dizu.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Horrela, aste honetako ezaugarririk nabarmena limurtzea da. Utz ezazu fantasiak gida zaitzan. Hortaz, une egokia da bikotekidea aurkitzeko, eta baita ligatzeko ere.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Gero eta ospe handiagoa daukazu, zure lagunen erdigunea zara; horregatik, ligatzeko aukera izango duzu eta baita erlazioaren bat hasteko ere.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Kirola egitea komeni zaizu, barruan daramazun energia guzti hori kanpora ateratzeko. Ondo jan ezazu eta tabakoa utzi. Une egokia da jokuan jarduteko.

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Momentu egokia da maitasunerako. Baina, zuhurtzia handiarekin jokatu beharko duzu. Piscis edo Escorpio bat komeni zaizu. Diru sarrera handiak izango dituzu.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Venus zure zeinuan sartu da, hori dela eta, maitasunaz eta bizitzaz gozatu beharko zenuke. Aukera ugari dituzu bikotekidea aurkitzeko.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Badakigu zalantzatia zarela, baina horregatik kosmosak beste aukera bat ematen dizu bikotekidea aurkitzeko. Baina, ez baduzu aurkitzen, zuk nahi ez duzulako da.

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> AEBn ikasketak.** Fullbright Komisioa. Ameriketako Estatu Batuetan ikasketak osatzeko dirulaguntzak, 2010-2011 ikasturtean graduondokoak, masterrak edo doktorego aurreko ikerketak egiteko. Epea: martxoaren 6a.

**> Caja Madrid Fundazioak** graduondoko ikasketak atzerrian egiteko 125 beka banatzeko deialdia egin du. Ikasketa-arloak honakoak dira: gizarte eta zuzenbide arloa, biosanitarioa, politeknikoa, zientzia eta musika arloa. Eskaerak Caja Madrid Fundazioaren webgunean beteko dira urtarrilaren 30a baino lehen.

**LANA**

**> Sei udaltzain.** Oñatiko Udalean 6 udaltzain-lanpostu betetzeko oposizioa. Epea: Otsailaren 2a.

**> Osakidetza.** Mantenimendurako eta instalazioetako erdi-mailako teknikariaren 4 lanpostu, prebentzio, segurtasun eta higieneko goi-mailako teknikariaren 7 lanpostu, prebentzio, segurtasun eta higieneko erdi-mailako teknikariaren 4 lanpostu. Epea: otsailaren 9a.

**> Antolaketako teknikaria.** Eibarko Udalean Antolaketako Teknikari Laguntzaile bat kontratatzeko deialdia. Urtarrilaren 26a.

**LEHIAKETAK**

**> Nontzefilmak 2009 lehiaketa.** *Nontzeberri.com* kultura webguneak Nontzefilmak Film Laburren online lehiaketa jarri du martxan. Epea: otsailaren 28a.

**> 'Carsa Arte 2009'.** Arte digitaleko Carsa Arte lehiaketa. Gaia: artea eta teknologia. Iraupena: 90 segundu. Epea: martxoaren 22ra arte.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3
943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea
943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4
943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 12

**> Gaurtik zabalik Kantarin izena emateko epea**
**21:47**

Gaurtik otsailaren 6ra arte izango dute Debagoieneko umeek Kantari lehiaketan izena eman ahal izateko epea.

- **13:15** Marrazki bizidunak
- **13:45** Erlo klip.
- **14:15** Eltze beroa.
- **14:45** Berriak.
- **15:15** Itsasoari begira: Donostiako Aquariuma.
- **15:45** Erreportajea.
- **16:15** 28 klip.
- **16:45** Berriak.
- **17:15** Marrazki bizidunak.
- **17:45** Danbaka
- **18:45** Berriak.
- **19:15** Marrazki bizidunak.
- **19:45** Goiena Magazinea.
- **20:45** Golb tb.
- **21:15** Goiena Magazinea.
- **22:15** Harmailatik.
- **23:00** Erreportajea.
- **23:30** Goiena Magazinea.
- **00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 13



**> Norman taldearen kontzertua**
**20:45**

Danbaka lehiaketako finalean Norman taldeak eskainitako kontzertua ikusteko aukera izango duzue martitzenean, 20:45ean.

- **13:15** Marrazki bizidunak
- **13:45** Ikusten: AEK
- **14:15** Eltze beroa: Ahate konfita.
- **14:45** Berriak.
- **15:10** Harmailatik.
- **15:50** Solaskide.
- **16:20** Erloklip.
- **16:45** Berriak.
- **17:10** Marrazki bizidunak.
- **17:35** Erreportajea.
- **18:05** Harmailatik.
- **18:45** Berriak.
- **19:15** Marrazki bizidunak.
- **19:45** Goiena Magazinea.
- **20:45** Danbaka: Norman.
- **21:15** Goiena Magazinea.
- **22:15** Ilunpean: Xabier Solano.
- **23:00** Ikuskizuna.
- **23:30** Goiena Magazinea.
- **00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 14



**> Podologoaren aholkuak 'Zaharrak berri'-n**
**20:45**

Osasunaren arloa landuko dute, besteak beste eguazteneko *Zaharrak berri* saioan. Hain justu, Podologoa izango da saioan.

- **13:15** Marrazki bizidunak
- **13:45** Ikusmira: Herri kirolak.
- **14:15** Gure saltsan
- **14:45** Berriak.
- **15:10** Ilunpean.
- **15:50** Golb tb.
- **16:20** 28 Klip.
- **16:45** Berriak.
- **17:15** Marrazki bizidunak.
- **17:45** Solaskide.
- **18:15** Ur eta lur.
- **18:45** Berriak.
- **19:15** Marrazki bizidunak.
- **19:45** Goiena Magazinea.
- **20:45** Zaharrak berri.
- **21:15** Goiena Magazinea.
- **22:15** Erreportajea: Odol emaileak.
- **22:45** Euskal herria lau haizetara: Nafarroako hegoaldea.
- **23:15** Goiena Magazinea.
- **00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 15



**> Petti bakarlaria kontzertuan ikusteko aukera**
**20:45**

Danbaka lehiaketako finalean Petti bakarlaria izan zen gonbidatu gisa. Kontzertu hura eskainiko du GOITB-k eguenean.

- **13:15** Marrazki bizidunak
- **13:45** Euskal herria lau haizetara.
- **14:15** Eltze beroa: Sardinak.
- **14:45** Berriak.
- **15:15** Ikusmira.
- **15:45** Ikuskizuna.
- **16:15** Zaharrak berri.
- **16:45** Berriak.
- **17:15** Marrazki bizidunak.
- **18:00** Erreportajea.
- **18:45** Berriak.
- **19:15** Marrazki bizidunak.
- **19:45** Goiena Magazinea.
- **20:45** Danbaka
- **21:15** Goiena Magazinea.
- **22:15** Berbaire.
- **23:15** Erreportajea:
- **23:45** Goiena Magazinea.
- **00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 16



**> Debagoieneko albisteak Goiatz Aranaren eskutik**
**14:45**

Egubakoitzetan ere, gainerako egunetan bezala, ibarrean gertatzen denaren gaineko kontuak Goiatz Aranarekin.

- **13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
- **13:45** Ur eta lur.
- **14:15** Eltze beroa.
- **14:45** Berriak.
- **15:15** Berbaire.
- **16:15** Ikusten.
- **16:45** Berriak.
- **17:15** Marrazki bizidunak.
- **18:00** Ilunpean.
- **18:45** Berriak.
- **19:15** Marrazki bizidunak.
- **19:45** Goiena Magazinea.
- **20:30** Gure saltsan.
- **21:00** Goiena Magazinea.
- **21:45** Solaskide.
- **22:15** Danbaka.
- **23:15** Goiena Magazinea.
- **23:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Iñaki Salvador musikariaren taldea ikusteko sarrerak**
**10:30**

Iñaki Salvador musikari ezagunak –Mikel Laboarekin jardun zuen urte askoan– eta haren taldeak Arrasaten eskainiko duen kontzertua ikusteko sarrerak dituzte Arrasate Irratian. Kontzertua urtarrilaren 31n izango da eta kontzerturako sarrerak lortzeko deitu 943 25 05 05era.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

**TTIPI-TTAPA** > TELEBISTA NAFARRAK PROGRAMAZIOA ETENGO DU

# Ttipi-ttapa telebistak emisioa bertan behera utziko du hilaren 31tik aurrera

### Nafarroako Gobernuak euskal hedabideetara bideratuko duen diruaren murrizketa da arrazoi nagusia

**MIREN ARREGI** > BERGARA

Bertan behera utziko du programazioa Ttipi-Ttapa telebistak hamar urteko ibilbidearen ondoren. Hilaren 31n moztuko dute emisioa. Telebistako seinaleak jarraituko du, baina, *stand-by* egongo da; alegia, edukirik gabe.

Euskara Nafarroako hedabideetan bultzatzeko diru laguntzak %97an jaitsi ditu Nafarroako Gobernuak; 9.580 euro bideratuko dira horretara, hain justu. Guztira, 50 hedabide euskaldun baino gehiago dira, eta beraz, kontuak atera besterik ez dago.



Tokiko Telebisten Elkarteko kide da Ttipi-ttapa. GOIENKARIA

Minez eta penaz hartu dute Ttipi-ttapa telebistako zuzendari eta langileek telebista bertan behera uzteko erabakia, Joxe Manuel Irigoien zuzendariaren hitzetan. "Erabakiak hiru langileri eragingo die momentuz" adierazi du. Aurrera begira, berriz ere martxan ipintzeko itxaropena ez dutela galdu ere adierazi du Irigoienek.

**'GRAN HERMANO'**

# Gainerako programen audientzia hirukoiztuz

**M.A** > BERGARA

Eguen gauean Tele 5 kateak eskaini zuen *Gran Hermano* saioaren finalak gainerako kateen audientziak hirukoiztu zituen. Zeppelin TV ekoizle etxearen saioaren hamargarren edizioak, beraz, aurreko edizioetan izan duen pareko arrakasta lortu du. Denborak saioa agortu baino, badirudi indartu egin duela.

Egueneko finalak 4,7 milioi jarraitzaile izan zituen, eta audientzia datuaren %31,5a eskuratu zuen; orain arte lortutako daturik onena. Beraz, gainontzeko kateen audientziak hirukoiztu egin zituen eguenean *Gran Hermano* saioak.

kuxkuxeroa



Txomin Madina

# Zikloiak? Gurean, bat baino gehiago

Asteburuko hitzik errepikatuena izango zen zalantza barik: zikloia. Arbolak lurrean, teilak kolokan, orrazkera txukunak nahastuta… **Antzuolan eta Aramaion**, esaterako, argi barik egon dira domekara arte. Diotenez, New Yorken, argindarrik gabeko gau baten ostean, *baby-boom*-a egon ei zen bederatzi hilabetera… Urria inguruan, geuk ere datuei begiratu beharko diegu gure herrietan.

Baina ez da ibarreko zikloi bakarra izan: **Brutal Melody**-k zikloi musikala eragin zuen zapatuan, eta bertan murgildu ziren **S.Ako Jimmy** gitarra jotzen eta **Gose**-ko **Iñaki Bengoa** entzule moduan. Danbakarekin ez zuten aski izango…

**Brutal Melodyk zikloi musikala eragin zuen Arrasateko 3.60 aretoan**

Ni, baina, egubakoitzean Elgetako Espaloian bildutako 30 zikloiekin geratzen naiz. Merezitako omenaldia jaso zuten bertan *ahotsak.com* proiektuan parte hartzeagatik. Txundigarria da adinean hain gazte ez direnen kontuak eta pasarteak entzutea, beti euskara paregabean. **Miren Arantzeta** ezagutzeko plazerra izan nuen han: emakume dotorea, kamara aurrean jartzeko, ezpainak ondo margotu zituena. Enkargu bat eman zidan, eta gusto handiz beteko dut. Hemendik gorantziak Oñatin bizi den bere anaia Rufinori.

asteburuko albuma



**Afari japoniarra Eskoriatzan.** Azkoaga Enea hotelean, Japoniako jaki tradizionalez osatutako afaria egin zuten zapatuan. Jendearen interes handia piztu zuen gainera, eta bat baino gehiago geratu zen toki barik. German Castillo arduratu zen sukaldeko lanak zuzentzeaz, eta besteak beste, sushia, sashimia eta makiak jan zituzten. Tabernan ere jarri zituzten pintxo gisa, eta han ere, jende asko animatu zen probatzera. Hoteleko arduradunen asmoa da horrelako gehiago antolatze,a eta otordu mexikarra eta greziarra egitea aztertzen dabiltza.



**Asier Serranoren emanaldia.** *Hoteleko kontuak eta kantuak* izeneko kontzertua eskaini zuen egubakoitzean Asier Serranok Bergarako Zabalotegi aretoan. Antxon Sarasua piano jotzen lagun zuela, Serranok ipuinak, poemak eta kantuak eskaini zizkien bertaratu zirenei, beti ere giro intimista eta lasaian.



**Kinto-afaria Bergaran.** 1982an jaiotako bergararrek, azken urteetako ohiturari jarraituz, afaria egin zuten zapatuan. Tartufon afaldu ondoren Bergarako tabernetan ibili ziren ordu txikiak arte. 20 bat lagun bildu ziren, eta esan digutenez, izena ematen azkenari egokitu zaio datorren urtekoa antolatzea.



**79an jaiotakoen bilera Aretxabaletan.** Aspaldiko urteetan lehenengo aldiz, 1979an jaiotako aretxabaletarrek afaria egin zuten zapatuan. Basaben egin zuten otordua, eta ondoren, herrian bertan geratu ziren parrandan. 25 lagun inguru elkartu ziren, eta hurrengorako, joan ez zirenak animatu gura dituzte.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.



URTEURRENA

**Maria Igartua Odriozola**



Laugarren urteurreneko meza
bihar martitzena, urtarrilaren 27an, 19:30ean
Oñatiko Agustinoen elizan.

—

*Beti gogoan izango zaittugu*

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## zorion agurrak



BERGARA
**Unax Murgizu Rodriguez**
Abenduaren 29an, 2 urte. Zorionak etxekoen partetik, bereziki Hodei eta Iraiaren partetik.



BERGARA
**Lander Rejano Molina**
Urtarrilaren 7an, 5 urte. Zorionak Lander! Etxeko guztiek beilei haize emango diegu zurekin!



ARRASATE
**Danel Zuazubiskar**
Urtarrilaren 19an, 5 urte bete zituen. Muxu handi bat Naia, amatxo eta aitatxoren partetik.



OÑATI
**Miriam Arregi Ortiz de Luzuriaga**
Urtarrilaren 19an, 22 urte. Zorionak panpoxa! Ondo ondo pasau zure eguna eta laztan haundi bat kuadrillakuan partetik!



OÑATI
**Marta Lizarralde**
Urtarrilaren 20an, 12 urte betetzen ditu. Zorionak marta! Ondo pasau eguna egunero ez diala 12 urte beteten, ta mx potoluak zure kuadrillian partez.



BERGARA
**Nagore Iñurrategi**
Urtarrilaren 21an. Aquagymeko lagunak ez dira zure urtebetetzeaz ahazten. Zorionak!



ARRASATE
**Javier Iribecampos**
Urtarrilaren 22an, 45 urte bete zituen. Ondo pasau zure egunian etxekuekin. Idoia, Maia eta Oxel. Muxu haundi bat.



BERGARA
**Maider Bilbao**
Urtarrilaren 23an, 4 urte bete zituen. Aitatxo, amatxo eta Haritzen partez, patxo handi bat. Zorionak!



OÑATI
**Gloria Tejada**
Urtarrilaren 23an, 22 urte bete zituen. Zorionak eta urte askotarako! Ondo pasau zeure egunian, eta patxo haundi bat kuadrillakuon partez.



OÑATI
**Josu Lizarralde**
Urtarrilaren 24an. Zorionak!! Ondo pasa eguna. Lankideen partetik.



ARRASATE
**Leire Carrascosa**
Urtarrilaren 24an, 6 urte betetzen ditu. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunen partetik.



OÑATI
**Martin Elorza Agirre**
Urtarrilaren 24an, 7 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen parte!



ARRASATE
**Iratxe Unamuno Ayastuy**
Urtarrilaren 24an. Zorionak izeba! Patxo pila, pila patata tortila Julene eta Iratiren partetik.



ARRASATE
**Aimar Agirre Lete**
Urtarrilaren 26an, 3 urte betetzen ditu. Zorionak eta ondo pasatu zure eguna, familiakoen partetik!



ARRASATE
**Paula Heriz Uribesalgo**
Urtarrilaren 26an, 19 urte betetzen ditu. Zorionak prexioxa! 19 urte jada. Ondo pasatu ta patxo handixa Zigarrolakuen partetik.



BERGARA
**Irati Iriondo Igarza**
Urtarrilaren 27an, 4 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handi bat familiaren partetik.



ARETXABALETA
**Amaia Altube eta Ainere Caballero**
Urtarrilaren 10ean eta 27an. Zorionak, marimatrakak. Muxu goxo-goxuak zuentzat aitatxoren partez. Ondo pasau!



BERGARA
**Andoni Perez Lijo**
Urtarrilaren 27an, 4 urte betetzen ditu. Zorionak eta muxu handi bat Diego, Cris, Naia eta Ikerren partetik.



ARRASATE
**Danel Ruiz**
Urtarrilaren 27an, 3 urte betetzen ditu. Zorionak *Txipi*! Besarkada handi bat aitatxo eta amatxoren partez.



ARRASATE
**Danel Iturbe Kintana**
Urtarrilaren 27an, 5 urte betetzen ditu. Zorionak etxekoen partetik eta patxo handi bat.



OÑATI
**Izar Bikuña Malbadi**
Urtarrilaren 27an, 5 urte betetzen ditu. Zorionak printzesa! Maite zaitugun denon partez ondo ondo pasatu egun berezi hau; opari asko jaso eta patxo potolo hau zuretzat: paaa!



ARRASATE
**Mikel Santiago Azurmendi**
Urtarrilaren 28an, 10 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handi bat etxeko guztien partetik: Irati, Emi, Jou, Tati, Zizili, Haizea, Jabar, Felitxo, Kris..



BERGARA
**Josu Larrañaga**
Urtarrilaren 28an, 7 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen eta bereziki Gorkaren partetik.



ESKORIATZA
**Ekaitz Andres**
Urtarrilaren 28an, 5 urte. Zorionak eta laztan handi bat etxeko guztion partetik.



BERGARA
**Ibon Etxebarro**
Urtarrilaren 29an, 11 urte betetzen ditu. Zorionak etxekoen partetik.



OÑATI
**Begoña Idigoras**
Urtarrilaren 29an. Zorionak eta urte askotarako, ama! Holaxe jarraittu urte askuan eta bazkari goxua zure kontu, eh? Laztan haundi bat etxeko danon partez.



ARETXABALETA
**Josu Aizpurua Olabe**
Urtarrilaren 30ean, 8 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu eguna, lagunen partetik.



ARRASATE
**Jon Ayesa**
Urtarrilaren 30ean. Zorionak eta muxu bat etxeko guztien partetik. Ondo pasa.



BERGARA
**Itsaso Goenaga**
Urtarrilaren 30ean, 12 urte betetzen ditu. Etxekoen partetik zorionak, bereziki Maddiren partetik.



OÑATI
**Miren Barrena**
Urtarrilaren 30ean, 28 urte betetzen ditu. Zorionak guapa! Ondo ondo pasau eta muxu haundi bat zure lagunen partetik!



BERGARA
**Jone Ibarra**
Urtarrilaren 30ean, 8 urte betetzen ditu. Zorionak polit hori! Ondo pasa zure egunean! Amatxo, aitatxo eta Gorkaren partetik.



BERGARA
**Malen Garitano**
Otsailaren 1ean, 4 urte betetzen ditu. Zorionak etxekoen eta bereziki Unaxen partetik.

## jaiotakoak



**Peru Barrena Urrutikoetxea**
Arrasate > Urriaren 23an. Gurasoak: Irati (Miarritze) eta Iñaki (Arrasate). Argazkian, Peru jaioberria gurasoekin.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Goienkaria ASTELEHENEKO
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-01-26

**Maite Iturraran** > 'El conquistador del fin del mundo' saioko parte-hartzailea

# "Motxila hartu eta India aldera egingo nuke"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

**Baliteke Maite Iturraran izatea Patagoniako konkistatzaile berria. Handik bueltan da hura, baina lehiaketaren nondik norakoez gutxi atera ahal izan diogu. Bada, Patagonia utzi eta orain Indian dauka ipinita begirada.**

**Dagoeneko bueltan zaude Patagoniatik; alderik ez hango hotza hemengoarekin, ezta?**

Desberdina da hango negua. Gainera, gu joan ginen han uda zela. Hala ere, haize *patagonikoak* ez du barkatzen; hotz handia egiten zuen, niretzat gogorrena izan da, batez ere uretan egiten genituen probetan, ze gero arropa ez da-eta lehortzen.

**Ordu asko eman dituzu ezezagunekin. Hori ere gogorra izango da.**

Nahiko irekia naiz eta hori ez da arazoa izan. Lagunak berehala egin eta giro polita izan dugu. Lehiaketatik kanpo ere harremana izaten jarraitzen dut.

**Ez da edonorendako lehiaketa. Zu abenturazalea zara?**

Bai, betidanik gustatu izan zait, eta baita telebista ere. Aurreko denboraldiko azken saioa ikusi eta aitak berak animatu ninduen. Posta elektronikoa bidali, *casting*-a egin eta hartu egin ninduten. Azkeneko *casting*-ean 1.500 lagun aurkeztu ziren.

**Bestelako *reality*-ren batera joango zinateke?**

*Gran hermano*-ra, ezta pentsatu ere, baina *Pekin Express*-ko *casting*-era aurkeztu naiz, Patagoniako beste lehiakide batekin. Aurten Indian izango da.

**Telebista oso gustuko duzula diozu.**

Bai, hala da, eta gainera, lehiaketan egon eta gero konturatu naiz atzeko lana ere oso gustuko dudala.

**Orain aukera izango bazenu, motxila hartu eta nora joango zinateke?**

Indiara joan gurako nuke. Motxila hartu eta India eta Thailandia ingurura joango nintzateke. Abentura dagoen edozein lekutara joango nintzateke.

**Leziorik ekarri duzu Patagoniatik?**

Egunak luze egiten ziren. Gosea izatea benetan zer den ere ikasi dut. Pazientzia handia izaten ere ikasi dut, eta baita taldean jokatzea ere.

**Telebistan ikusitakotik, zenbat da egiazkoa?**

Gehiena, baina askotan eztabaidak errepikatzeko eskatzen ziguten. Kamerak hartzen ez bazuen, adibidez, guregana itzuli eta elkarrizketa berriz ere hasteko esaten ziguten.

TEST-A

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 24 urte. **Ikasketak:** Idazkaritza. **Bizi izateko toki bat:** Donostia. **Zaletasunak:** Kirola egitea gustatzen zait, eskia batez ere, eta lagunekin egotea. **Gomendatu liburu bat.** Abenturazko edozein. *The Shadow of the Wind* irakurri dut orain, ingelesezko bertsioan. **Film bat.** *Saw* saileko edozein, lehenetik bosgarrenera. **Amets bat:** Pozik bizi ahal izatea. **Bidaiatzeko toki bat:** Indiara joango nintzateke gustura.



BIDAIA Abentura dagoen edonora joango litzateke. JON BEREZIBAR

## ai, ene!



### Hodiak, bizileku

Etxebizitza eskuratzea arazoa da askorendako. Austriako Ottensheim hirian Das Park hotela egin dute estolderiako hiru hoditan, eta oso harrera ona egin diote. Kontuan hartzeko alternatiba izan daiteke bizi ditugun garaietan.

http://www.sarda.es

## biharamuna

Iñigo Biain

### Hauteskundeen karpa azpian

Hasi da zirkua. Hainbat pailazo, lehoi, tximu, akrobata, mago eta izaki politikok areetara salto egin dute. Bertan, txinpantze zaharrena den EAJk atzerriko trapezista den PP eta PSE magoa elkarren eskutik doazela salatu du, eta tximu zaharrenaren aspaldiko laguna den EA pailazo eskizofrenikoak harreman hau bertan behera uztea erabaki du, zirku berean espektakulu ezberdin bat eskainiz. Bitartean PP trapezistak salatzen du PNV txinpantzeak eta PSE magoak planen bat badutela zirkuaren jaun eta jabe egiteko. Areazko gazteluak egiten jarraitzen duen EB pailazo mozolo xamarrak ez du halakorik ikusten, eta bera ere espektakulu berean egoteko eskaera egiten du ozen, inork entzuten ez badio ere. Banbalinen artean dagoen kaiola zikinean D3M tigre nekatua isilik dago, ez baitiote orro egiten utzi nahi. Bere soineko marrak berriz ere tokiz aldatu dira, eta bere letaginak inoiz baino kamutsagoak daude. Hala ere, zirkuko lehendakariak tigrea hantxe egotea nahiago du, badaezpada ere. Tronpeta soinuak hasi dira, argiak piztu dituzte, eta publikoa hasi da karpa azpira sartzen Rosa Diezek saldutako sarrerak eskutan dituztela ...



## eguraldia



MAXIMOA +4

MINIMOA +7

Neguko giroarekin hasiko dugu astea. Trumoia eta txingorra izango da eta elur-kota 600-700 metro inguruan kokatuko da.

www.euskalmet.net





Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) | AIZKO
Amore amore (Karidadeko benta) | AMORE
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) | ASKATA
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | BEGIAK
Bi Minutuero (Hertzainak) | BIMINU
Dub manifest (Fermin Muguruza) | DUB
Egunero (Hertzainak) | EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) | SUKAR
Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | ELLOS
Enamorado de la muerte (RIP) | ENAMO
Entzuidazu (Aterking's) | ENTZU
Etorkizuna (Etsaiak) | ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken7) | EZER
Gora Herria (Negu Gorriak) | GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | BELAIR
Haizea (Ken7) | HAIZEA
Hegal egiten (Itoiz) | HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) | IKUSI
Ilargia (Ken 7) | KEN
Inpernuen ate joka (Gatibu) | INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | JOKIN
Kaixo (Urtz) | KAIXO
Lau Teilatu (Itoiz) | ITOIZLAU
Laztana (Latzen) | LAZTA
Lotuta egon arren (Kokein) | LOTUTA
Loretxoa (EXKIXU) | LORE
Marea Gora (Itoiz) | MAREA
Musturrek sartunde (Gatibu) | MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) | NICA
No time for love(Hertzainak) | NOTIME
Salve (La Polla) | SALVE
Sarri Sarri (Kortatu) | SARRI
Sorginen leizean (Exkixu) | SORGIN
Txatxo (Zarama) | TXATX01
Txus (La Polla) | TXUS

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) | BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) | BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapia) | HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | ITSAS
Kupela (Epelde eta Larrañaga) | KUPELA
Mila galdera (Alaitz / Maider) | MILAI
Nirekin (Gozategi) | GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | HIRA
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) | TXANPON

SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES Y EDITORES

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

SATANAS EH2 SORGIN4 AIZKORAK
TARTALO IKURRI3 LORA BABAK
BASAJAUN IKURRI5 LAU2 ARRANAK

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.